

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko azaroaren 9a • II. urtea • 40. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**KIROLA:**  
**BOSTEHUN BAT**  
**DEBAGOIENDAR**  
**BEHOBIA-**  
**DONOSTIAN /10**



**AITOR ARANTZABAL**

*“Batasunaren erabaki gunea eta oinarria herria izango da” /8-9*

**HERRIZ HERRI**

**Aurrera doaz Arrasateko Kontzezinoko zubi berria egiteko lanak /5**

**Goienka2a**

**Ruper Ordorikaren azken diskoaren aurkezpena**

**IRLANDAN BIZI DIREN DEBAGOIENDARREN IRITZIA JASO DUGU**

## Ipar Irlanda, bakearen atarian

IRAK, Irlandar Armada Errepublikarrak, bere arma eta lehergailu biltokiak deuseztatu egingo dituela jakinarazi zuen orain dela pare bat aste. Politikariek, ikuskatzaileek eta, oro har, Irlandako bake prozesua jarraitu duten guztiek aurrerapauso historikotzat jotzen dute IRAREN erabaki hori, Irlandako gatazkak iraun duen 30 urte-

otan talde armatu batek lehenengo aldiz eskaini duelako armak uztea. Geurean ere arretaz eta ilusioz hartu da albiste hori, eta zeresan handia eman du berriak.

Bestalde, bake prozesua kolokan eta bertan behera geratzeko arriskuan zegoen une baten gertatu da IRAREN jarrera aldaketa, Gerry Adams-ek, Sinn Feineko

buruak, hala eskatu ondoren. Bakea inoiz baino hurbilago dagoela ematen du: 1998an Belfasten sinatutako akordioa biziberritu egin da; eta Irlandako eta Erresuma Batuko gobernuak “esku-zabaltasuna” agindu dute. Hango egoeraren berri, Irlandan bizi diren hiru debagoiendarrek eman digute. /2-3

## Urrian oso euri gutxi egin duela eta, neurriak hartu dituzte Antzuolan

Urrian, oso euri gutxi egin du, eta herriko iturburuak ez agortzeko neurriak har ditzatela eskatu die Antzuolako Udalak herri-tarrei. Duela aste bi, Antzuolako atari guztietan ohar bat jarri zuten Udaleko arduradunek, jende-ari ur kontsumoa zain zezan eskatzeko. Mireia Unamuno Antzuolako alkatearen esane-

tan, “dagoeneko igarri dugu ur kontsumoa jaitsi egin dela; jendeak horretarako egin duen esfortzua eskertzekoa da, berriz”.

Antzuolako kasua berezia da; izan ere, ibarreko gainerako herriek Urkuluko urtegitik jasotzen dute ura. Antzuolak, aldiz, iturburu propioetatik. /4

## Hasieran uste baino hazkunde txikiagoa izango du MCCk

Mondragon Korporazio Kooperatiboa (MCC) urte hasieran aurrez ikusitakoaren azpitik haziko dela esan du taldeko buru Antonio Cancelok. Aurtengo urterako fakturazioa %14 haziko zela aurrez ikusi zuten MCCko buruek, baina ez diote horri eutsiko, bereziki irailaren 11ko erasoek eragindako eskarien gainbeheragatik. Hala ere, taldea zenbat motelduko den ez du zehaztu Cancelok. Azken hila-beteotan, MCCren hazkunde oso txikia izan dela esan du MCCko buruak. /3

## HERIOTZA

### Jose Agustin Elustondo hil zen astelehenean

Jose Agustin Elustondo Arantzazuko fraidea hil zen astelehenean, Arantzazun, 74 urte zituela. Orain dela sei urte antzeman zioten gaixotasun larriak eroan zuen. Haren aldeko hileta elizkizunak martitzenean egin ziren Arantzazun. Arantzazuko fraide zaharrena zen eta Arantzazu aldizkariko zuzendaria izana zen, bi alditan, 25 urtez. /3



Jose Agustin Elustondo.

## Azken atentatua gaitzesteko kale bilkurak

Lehendakariaren deia erantzunez, kale bilkurak egin ziren atzo, eguena, ibarreko herri nagusietan. Kale agerraldiok eguaztenean antolatu ziren, Getxon tiroz hil zuten Jose Maria Lidón epailearen hilketarengatik protesta egiteko.



LEINTZ GATZAGAKO UDALA

## Artisauen feria Leintz Gatzagan

Domekan egingo da San Milixanetako IX. Langintzen Ferixa. Goizeko 10:30ean hasita, hamabost artisau izango dira, besteak beste, zapatagintza, zeramika, bitxiak, beira, larrugintza eta egurrezko jostailuak lantzen. Artisanen lanak ikusteaz gain, irametak zelan egiten diren ikusteko aukera ere egongo da.



**COMERCIAL BRUNET**

**MOTZERRA ESKAINTZA BEREZIA!**

Motzerra zaharra ekarrita, **37.398 pta.**-raino emango dizkizugu



Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52



# Irlanda

## Irlandan bizi diren hiru debagoiendarren ikuspuntua

# bakearen atarian

Urriaren 23an, IRAk, Irlandako Armada Errepublikarrak, bere arma eta lehegailu biltokiak deuseztatu egingo dituela jakinarazi zuen. Politikariek, ikuskatzaileek eta, oro har, Irlandako bake prozesua jarraitu duten guztiek aurrerapauso historikotzat

jo dute IRAren erabaki hori, Irlandako gatazkak iraun dituen 30 urteotan talde armatu batek lehenengo aldiz eskaini duelako armak uztea. Bestalde, bake prozesua kolokan eta bertan behera geratzeko arriskuan zegoen une baten gertatu da IRAren jarrera aldaketa, Gerry Adamsek, Sinn

Feineko buruak, hala eskatu ondoren. Bakea inoiz baino hurbilago dagoela ematen du: 1998an Belfasten sinatutako akordioa biziberritu egin da; eta Irlandako eta Erresuma Batuko gobernuek "eskuzabaltasuna" agindu dute. Baina itxaropenarekin batera, zalantzak piztu dira...

Egoera korapilatsu horren gainean berba egin du GOIENKARIAk Irlandan bizi diren, eta egoera gertutik ezagutzen duten hiru euskaldunekin, eta baita gurean dauden bi irlandarrekin ere.

LEIRE KORTABARRIA

### IÑAZIO IRIGOIEN

*“Errepublikarrek borroka politikoan jarri dute pisu guztia”*

Iñazio Irigoien 35 urteko bergararra dugu. 1993tik hona Irlandan bizi da, eta *An Phoblacht/Republican News* egunkarirako lan egiten du, argazkilari moduan.

**Zelan baloratzen duzu IRAk emandako pausoa?**


Errepublikarren estrategiaren barruan ikusten dut; aspaldi erabaki zuten pisu guztia borroka politikoan jartzea, eta borroka armatua pixkana-pixkana alde batera uztea. Mugimendu errepublikarrak, IRA eta Sinn Fein barne, bide politikoa jarraitzea erabaki du, eta erabaki hori hartu aurretik, beharrezkoa zen adostasun bat mugimenduaren barnean. Gainerako alderdi politikoen papera txikia izan da, armak aitzakia besterik ez zirelako prozesuan ez aurreratzeko. Egia esan, IRAren erabakia jakitera eman baino aste bat lehenago, errepublikar komunikabideak horrelako zer edo zer gerta zitekeela esaten zebiltzan, eta jendeak nahiko onartua zeukan.

**Errepublikar guztiek ondo hartu dute IRAren pausoa?**

Oro har, nahiko ondo, bai; baina, kasu jakin batzuetan, Belfast-eko iparraldean edo Armagh-eko konderrian, adibidez, jendea ez dago oso pozik, unionisten aldetik antzeko keinu bat ikusi gura dutelako.

**Eta unionistek zer esaten dute?**

Beti bezala, zatituta daude



euren erantzunean. Batzuek onartu egiten dute gertatutakoa, eta, oraingoz behintzat, prest daude errepublikarrekin lan egiteko; beste batzuek IRAren arma guztiak gura dituzte, baina ez dute txintik esaten loialistek dituzten armen inguruan.

**Hurrengo urratsa zein izan beharko litzateke, eta zeinek eman beharko luke?**

Britainiarrek eman beharko lukete hurrengo urratsa: polizia berritu beharko lukete, Ipar Irlandan duten armada murriztu...

**Armada britainiarrek Ipar Irlanda utziko duela iragarri da... Posible ikusten duzu?**

Gauzak asko aldatu beharko dira hori gertatzeko. Galdera ez da horrek zein aldaketa ekarriko lituzkeen, baizik eta zer gertatu beharko den armada britainiarrek alde egiteko. Momentuz, hor daukagu talde armatu loialistak, jo eta sua gauero lehegailuak eztanda arazten. Bidea luzea da oraindik, eta pazientzia beharko dute guztiek hemengo gatazka konponduta ikusi aurretik.

### ASIER ERRASTI

*“Baikortasunerako arazoak daude”*

Eskeintzen jaio zen orain 24 urte Asier Errasti. Joan den apiriletik aurrera, Irlandako hiriburuan, Dublinen, bizi da.

**IRAren erabakia aurreikustetarik bazegoen?**

IRA horrelako keinu bat egin beharra zuen, batez ere unionistek desarmea erakundeak oztopatzeko aitzakia moduan erabili dutela ikusita. Errepublikarrek ezinbestekotzat jotzen dute pauso hori Irlandako aldaketa politikorako prozesua bete dadin, eta Sinn Feinek bakearen alde erakutsitako jarrerak sostengu zabala lortu du.

**Zein izango da Londresen jarrera aurrerantzean?**

Unionistek bake prozesu guztia IRAren armen auzira mugatu gura badute ere, badira beste gai batzuk ere: armada britainiarraren desmilitarizazioa, poliziaren erreforma... Arlo horietan aurrerapauso garbiak eman beharko ditu Londresek. Nazionalistek Egubakoitz Santuko Akordioak bere osotasunean betetzea eskatzen dute.

**Etorkezuna zelan dator?**

Katoliko eta protestanteen arteko ikusiezina ezingo da egun batek bestera konpondu. Era berean, unionista asko aldaketa politikoren aurka daude, eta prozesua hankaz gora jartzen saiatuko dira. Paramilitar loialistek eta IRAren talde disidenteez ere hor segitzen dute. Baina baikortasunerako arra-



zoiak daude, soluzioa bake prozesuak jarritako bidetik etorriko dela argi ikusten dutelako errepublikarrek.

**Irlanda eta Euskal Herria pareka daitezke?**

Zer ikasia badugu. Irlandan ezinbestekoak izan dira SDLP eta Sinn Feinen arteko kontaktuak, baita une zailenetan ere. Hortaz, ona litzateke Euskal Herrian talde abertzale guztiek hori argi izatea, are gehiago gure kasuan, konponbidea Lizarraren antzeko prozesu batetik etor daitekeelako.

**“Unionista batzuk prest daude errepublikarrekin lan egiteko; beste batzuek IRAren arma guztiak gura dituzte, baina ez dute txintik esaten loialistek dituzten armen inguruan”**

**“Euskal abertzaleek SDLP eta Sinn Feinen arteko harremana kontuan hartu beharko lukete”**



## Eta gure artean bizi diren irlandarrek?



*“Eszeptikoa naiz bake prozesuaren inguruan”*

**JOHN NELSON**  
Aretxabaleta/  
Irakaslea

Eszeptikoa naiz bake prozesuaren inguruan. Arazo politikoa izan arren, askoz larriagoa da giza arazoa, katolikoan eta protestanteen arteko ikusiezina eta gatazka, alegia, eta banda armatuek auzoen eta bizilagunen gainean duten kontrol zorrotza.

Badaude IRA baino indartsuagoak diren talde armatu protestanteak, eta horiek ez dute sinisten IRAREN esanean. Banda armatuen kontrola areagotu egingo da, horrek diru asko ematen dielako: leku batzuetan, lanpostuen %70 segurtasun arlokoak dira.



*“Irlandak egoera oso itxaropentsua bizi du”*

**EAMON FAGAN**  
Arrasate /  
Irakaslea

Momentu honetan, IRAk bere armamentua deuseztatuko duela iragarri ondoren, Irlandak egoera oso itxaropentsua bizi duela deritzot. Orain, espero dut armada paramilitar protestanteek IRAk eman duen eredu jarraitzeko adorea izango dute-

la. Etorkizunari dagokionez, oraindik egon badaude armak uztea kostatu egingo zaien bazterreko taldeak; baina iritzi publikoak erabaki hori hartzera behartuko dituela uste dut. Talde armatuen egunak zenbatuta daude. Oso baikorra naiz, bai.

### IHINTZ OLIDEN

## “IRA aukera sinplearen aurrean zegoen: bake prozesua salbatzea”

Ingelesa ikasteko, eta Irlandaren gaineko ideia erromantikoak bultzatuta, Belfastera joan zen 1997an familia debagoiendarra duen baionar hau. Gaur egun, albistegietan hamaika aldiz agertzen den Belfasteko iparraldean bizi da.

**Zein garrantzia du IRAREN urrats berriak Irlandako gatazka konpontzeko prozesuan?**

Desarmearen gaia ez da zinez garrantzitsua. Benetako eztabaida gatazkaren jatorria identifikatu eta konpontzea da; baina politikari batzuek armen gaia prozesua oztopatzeko erabili dute. Horregatik, desarmea behar baino garrantzitsuago bihurtu da, eta IRA aukera sinple baten aurrean zegoen. Bake prozesua salbatzeko urratsa izan da.

**Zein izan da politikarien jarrera?**

Jarrera positibo eta negatiboa izan dira. Sinn Feineko Gerry Adams eta Martin McGuinnessk IRAri urrats berri bat emateko eskatu zioten; baina Adamsek bake prozesua desblokeatzeko eskaintza bezala aurkeztu zuen IRAREN desarmearen pausoa. Unionistek dagoenez, David Trimble buruak baldintzak, mugak eta errepublikarren aurkako zigor ugari jarri ditu.

**Zer dio herriak?**

Auzo nazionalistetan, kezka da nagusi, loialisten indarkeria jasaten segitzen dutelako, eta defen-



datzeko modu barik geldituko diren beldur direlako. Hala ere, nazionalistek garbi dute IRAk ez duela loialisten aurkako babesa bertan behera utziko. Beste komunitatek begi onez ikusi dute IRAREN pausoa; baina akordioan sinisten ez dutenek itxurazko urratsa dela uste dute.

**ETAk eman dezake IRAk bezalako pauso bat?**

Nire ustez, ETARI ez zaio eman aukerarik, oraindik, IRAk bezalako pauso bat emateko. Ez dago ez negoziatorik, ez horretarako gogo-

edo asmorik Madril eta Parisen aldetik. 80ko hamarkadatik gaur egunera arte Irlandako prozesua bizirik mantendu duten faktoreak ez dira inoiz egon Euskal Herrian; eta hau, bereziki, frantses eta espainiar gobernuen jarrera ezkorrek eragin du. Irlandar errepublikar askok Margaret Thatcherrekin konparatzen dute Jose Maria Aznar. Gobernu kontserbadoreak boterea galdu zuenean, Tony Blairrek hartu zuen txanda, eta berak ireki zuen gatazka konpontzeko bidea.

**“ETARI ez zaio eman aukerarik, oraindik, IRAk bezalako pauso bat emateko. 80ko hamarkadatik gaur egunera arte Irlandan egon diren faktoreak ez dira egon Euskal Herrian”**

## Bailaran, labur

### ERREPIDEAK

#### Hiru aste barru bukatu gura dute Elorregitik Epelera arteko errepidea

Astelehenean hasi ziren Elorregitik Epelera arteko errepidean asfalto botatzen. Hilabeteak daramatzate errepide zati hori zabaldu eta bihurtzeko zuzentzen. Era berean, Elorregiko bidegurutzetan biribila jartzeko lanean ere badihardute. Obrak, baina, amaitzear daude. Hain justu, oraingo astean eta datozen bi asteotan, galtzadan asfalto-aglomeratua botako dute. Lanak gauzez egiten dihardute, 22:00etatik 06:00ak arte, zirkulazioa ez oztopatzeko. Izan ere, erreietako bat nahitaez itxi egin behar dute obrak egiteko. Azaroaren 23rako zoru berria botata eta margotuta egotea espero dute. Elorregiko biribila beste kontu bat da, lan horiek azaroaren erdialdera arte ez dituzte-eta amaituko. /ENEKO AZKARATE

### EKONOMIA

#### MCC urte hasieran aurrez ikusitakoa baino gutxiago haziko dela esan du Antonio Cancelok

Mondragon Korporazio Kooperatiboa (MCC) urte hasieran aurrez ikusitakoaren azpitik haziko dela esan du taldeko buru Antonio Cancelok. Aurtengo urterako fakturazioa %14 haziko zela aurrez ikusi zuten MCCko buruek, baina ez diote horri eutsiko, bereziki irailaren 11ko erasoek eragindako eskarien gainbeheragatik. Hala ere, taldea zenbat motelduko den ez du zehaztu Cancelok. Azken hilabeteotan, MCCren hazkundera oso txikia izan dela esan du MCCko buruak. Egoera horren aurrean, planak moldatu bai, baina norabideari eutsi behar zaiola uste du Cancelok. Edozein modutan ere, MCCk plan estrategikoa ez duela aldatuko esan du, “ezin delako estrategia bat aldatu testuinguruaren arabera”. Adierazpenok Bilbon egin ditu oraingo astean, Euskalitek antolatutako Kalitatearen Europako VII. Astearen inaugurazioan, hain zuzen ere. Canceloren iritzi, bizi dugun krisi egoerak ez du luze joko eta korporazioak egiten diharduen esfortzuak, berandu baino lehen, fruituak emango ditu. /E.A.

### HERIOTZA

#### Jose Agustin Elustondo frantziskotarra hil zen astelehenean Arantzazun

Jose Agustin Elustondo Arantzazuko fraidea hil zen astelehenean Arantzazun, 74 urte zituela. Orain dela sei urte antzeman zioten gaixotasun larriak eroan zuen. Haren aldeko hileta elizkizunak martitzenean egin ziren Arantzazun. Jende ugari batu zen azken agurra emateko, tartean Jose Maria Setien gotzain ohia. Arantzazuko fraide zaharrena zen eta Arantzazu aldizkariko zuzendaria izana zen, bi alditan, 25 urtez. /E.A.

### NATURA

#### Hegaztiak ikusteko irteera gidatua egingo dute bihar, zapatua, Santoñara

Behaketa irteera sorta antolatu dute Bergarako Mendia Bizirik eta Pol-Pol Mendizale taldeak. Behaketa irteera horiek gidatuak izango dira eta aditu bat egongo da espezieak ezagutarazi eta bereizten laguntzeko. Hortaz, edozein zalek parte har dezake irteerotan. Antolatzaileek eskualde osora zabaldu dute deialdia. Guztira sei irteera antolatu dituzte, hiru sailetan banatuta. Lehenengo sailean, kostaldeko, barnealdeko eta ibai aldeko hegaztiak, eta harrapariak landuko dituzte. Bigarren sailean, ibaietako ugaztunetan oinarrituko dira, eta hirugarrenean, geologia landuko dute. Lehenengo irteera bihar, zapatua, izango da, Santoñara, eta kostaldeko hegaztiak landuko dituzte. Irteera ordua 08:00etan da, Bergarako Pol-Pol taberna parean. Interesatuak prismatiko edo teleskopioa eramatea baino ez dute, eta izan ezean, antolatzaileek utziko dizkiete. Informazio gehiago, telefono honetan: 943 76 48 51. /MONIKA BELASTEGI



OÑATI

SAIHESBIDEAREN AURKA

**Jose Antonio Guridi**/Torreauzoko alkatea*“Ez dugu uste egin nahi duten saihesbidea beharrezkoa denik”*

AINTZANE IRIZAR

‘Torreauzo erditik saihesbidearik ez’ leloarekin hainbat kartel ikusi ditugu egunotan herrian. Auzotarrak sinadurak batzen ari dira saihesbidearen proiektuaren kontra, herritarren laguntza jasotzeko asmoz.

**Zazpi puntutan oinarritu duzue zuen jarrera.**

Bai. Torreauzoko erdi-erdi-tik pasatuko litzatekeen saihesbidearen berri izan bezain pronto, hainbat auzotarrak deitu zidaten, eta denon artean idatzi hori prestatu genuen. Hainbat puntu batu ditugu idatzi horretan; garrantzitsuena da guk ez dugula beharrezko ikusten saihesbidea egitea. Gure ustez, irtenbide onena orain dagoen errepidea konpontzea izango litzateke.

**Udalak eta Diputazioak, hala ere, beharrezkotzat jotzen dute, ezta?**

Saihesbidearen atzean bestelako interesak daude. Izan ere, errepide hori pasatuko litzatekeen alboan enpresa batek lantoki berria jarri nahi du. Horretarako saiakera egin zuen duela urte



batzuk, baina ez zuen lortu. Orain, berriz, lursail horiek industria-lur sailkatu nahi dituzte, eta uste dugu saihesbideak zerikusia duela lantokia egiteko asmo horrekin.

**Zein kalte eragingo lizkioke saihesbideak auzoari?**

Alde batetik, auzoa bitan zatituko luke. Horrekin batera, gaur egun Oñatin daukagun paraje natural politenetakoa hondatuta geratuko litzateke. Ondare historiko-artistikoak ere kalteak jasango lituzke, izan ere, auzoan errota bat, Erdi Aroko zubi bat,

dorretxe bat, eta abar ditugu, eta kalte nabarmena eragingo lieke.

**Sinadurak batzen ari zarete, eta gainerako auzo-alkateekin ere harremanetan diharduzue. Zelako erantzuna ari zarete jasotzen?**

Nahiko ona; duela bi aste hasi ginen sinadurak batzen, eta oraindik ez ditugu guztiak jaso, baina badirudi jendea gure aldeko jarra hartzan ari dela. Gainerako auzo-alkateekin ere harreman zuzena daukagu. Izan ere, behin-behingo onartu ziren arau subsidiario berriekin hainbat auzotan daukate eragina, era batera edo bestera. Gure kasuan, saihesbidearen arazo honetan gainerako auzo-alkateen laguntza jasotzen gabilta.

**Saihesbidea egitekotan, zelako etorkizuna ikusten diozu auzoari?**

Esan bezala, ingurune natural paregabean dago Torreauzo, eta saihesbideak ingurune hori nabarmen kaltetuko luke. Kalteak herritar guztiendako izango liriteke, ez auzotarrendako bakarrik. Kontuan hartu behar dugu jende asko etortzen dela hona paseatzera, kirola egitera...

BERGARA

KARTZELA ZAHARRA

**Kartzela zaharra ixteak zeresan ugari eragin du***Jardun elkartearen bulegoa kultura etxera eramanez, eta BGAKoek obrekin diraute*

MONIKA BELASTEGI

**Duela bi aste, kartzelariaren etxea itxi zuen alkateak dekretuz. Han, gaztetxea eta Jardun elkartearen bulegoak daude. Erabakiak zeresan ugari eragin du.**

Bi taldeek jasotako dekretuak arrazoi hauek ematen zituen kartzelariaren etxea ixteko: Bergarako Gazte Asanbladako (BGA) kideak obra ilegalak egiten ari zirela gaztetxean, eta eraikina egoera kaskarrean zegoela-eta, arriskutsua izan zitekeela. Bi taldeek Udalak erabilitako forma

desegokia salatu dute. BGAKo kideen esanetan, gauzak ondo ulertzeko historia apur bat egin behar da. Duela bi urte, Udalak kartzela zaharra erabiltzeko baimena eman zion BGARI: kartzelariaren etxea gaztetxea egiteko eta aretoa ekitaldietarako. Han, Jardun elkarte zegoen eta eraikina kon-

partitu beharra adostu zuten; Jardunendako kultura etxearen ondoan dagoen eraikina birgaitu arte. BGAK obra-proiektu bat ere aurkeztu zuen kartzelariaren etxea konpontzeko.

Diputazioak, baina, atzera bota zuen proiektua, kartzelako ekitaldi aretoak ez ditu-eta segurtasun neurriak betetzen. Horrela, Udalarekin adostutako proiektua ez dela bete adierazi dute BGAKoek. Eta gainera, kartzelariaren etxean obrak egiteko Udalak borondaterik ez duela agertu denbora honetan guztian. Horregatik ekin diote eurek obrei, apa-rejadore baten gidaritzapean. Gai-

**Zertzelada**

**Jardunek eta BGAK gaitzetsi egin dituzte Udalak erabilitako moduak. Batasunak eskatu du gaztetxeko obrak amaitzea, behin-behineko irtenbidea bada ere.**

nera, obrak apirilean hasi zituzten eta Udala jakinaren gainean zegoela adierazi dute.

**UDALAREN ERANTZUNA**  
Gallastegi alkatearen esanetan, kartzela zaharrari irtenbidea emateko, hau da, ekitaldietarako erabil daitekeen aztertzeo, enpresa bat kontratatu dute.

ELGETA

AZKENEAN KIROLDEGIA ZABALIK



OXEL EROSTARBE

**Azaroaren 16an Bolatokia zabalik**

Zerbitzu minimoak eskaini arren, abuztutik hona itxita egon da kiroldegia. Azkenean, azaroaren 16an zabalduko dituzte ateak. Bolatoki taberna arratsaldeko 18:00etatik 22:00etara zabalduko dute irekiera egunean.

Astean, menuekin jarraituko dute ugazaba berriek, plater konbinatuak ere izango dira eta asteburuetarako menu berezi batzuk gertatuko dituzte.

Irekiera egunean, pintxoak jarriko dituzte gerturatzen direnendako. Bolatokia gertu edukiko dute eta jai giroa ere izango da. Antxon, Iontxi, Asier eta Ander izango dira tabernako ugazaba berriak, eta egun horretan Bolatokira gonbidatu nahi dituzte herritarrek. /OXEL EROSTARBE

ANTZUOLA

**Erantzun ona izan du ur kontsumoa zaintzeko Udalak egin duen eskaerak**

AINTZANE IRIZAR

Urriaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartu zuten presoen eskubideen aldeko mozioa.

Urriaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartu zuten presoen eskubideen aldeko mozioa. Urriaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartu zuten presoen eskubideen aldeko mozioa. Urriaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartu zuten presoen eskubideen aldeko mozioa.

Antzuolako kasua berezia da, ibarreko gainerako herriek Urkuluko urtegitik jasotzen dutelako ura; Antzuolak, aldiz, iturburu propioetatik. Kontuan hartu behar da, urriko sikatea dela-eta, inoiz baino baxuago daudela urtegiak. Urkuluko urtegiak du mailarik altuena Gipuzkoan; hortaz, gainerako herriek ez dute Antzuolako moduko arazorik. Alkatearen esanetan, datorren urtean Antzuolan ere Urkuluko ura jasotzea espero dute. Horretarako dagoen proiektuan azken moldaketak egiten ari da Diputazioa.

ESKORIATZA

PRESOAK

**Euskal presoen hurbiltzea eskatzeko kale bilkura***Urriaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartu zuten presoen eskubideen aldeko mozioa*

MIRARI ALTUBE

**Eskoriatzako Udalak egubakoitzean herriko plazan euskal presoen eskubideen alde egingo den kale bilkurarako dei egin die herritar guztiei.**

Urriaren 26an egindako osoko bilkuran Batasuna alderdiak euskal presoen hurbiltzea eskatu eta haiek bisitatzera zihoazela hildako senide eta lagunekin bat egiteko, mozioa aurkeztu zuen. Mozio hori aho batez onartu zuten zortzi zinegotziek, PSEko zinegotzia izan ezik beste alderdi guztietako ordezkariak egon ziren-eta.

**DISPERSIOAK HERIOTZA**  
Euskal preso politikoaren aurkako dispersio politikak senide eta lagun askoren heriotza eragin duela

dio mozioak, azkenak Soraluzeko Iñaki Sáez eta Asier Heriz, Irantzu Benito, berriz, larri zauritua gertatu zela. Euskal Herriko gizarteak, bestalde, era askotara adierazi ei du azken urteotan euskal presoen dispertsioarekin bukatu gura duela, eta Euskal Herriko udaletako ordezkariak, hainbat aldiz egin bezala, Espainiako eta Frantziako gobernuei dispertsioarekin behin betiko bukatzeko eskatuko diete.

Horren aurrean, *Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatu. Euskal presoak Euskal Herri-raloan ordu laurdeneko kale bilkura egingo da herriko plazan gaur, egubakoitzean, 19:30ean. Zapatuan, bestalde, udal hautetsiei Soraluzen dispertsioaren aurka egingo den ekimen-dera dei egiten diete.*

**Zertzelada**

**Horren aurrean, Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatu. Euskal presoak Euskal Herri-raloan ordu laurdeneko kale bilkura egingo da plazan.**



ARETXABAETA

ARETXARTEN BATZORDEKIDE BERRIAK

## Aretxarte elkarteak hiru batzordekide berri aukeratu ditu datorren urterako

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den eguaztenean, Aretxartek, herriko merkatarien elkarteak, batzarra egin zuen. Bilkura horrek bi helburu izan zituen: batetik, batzordekide berriak aukeratzea, eta bestetik, Gabonetarako kanpaina prestatzen hastea. Horrez gain, elkarteko bazkideek aukera izan zuten Aretxartek Hobetuz-ekin lankidetzan antolatu dituen ikastaroetan

izena emateko. Batzordekide berriei dagokienez, Gemes edertze aretokoak, Albokakoak eta Aitzorrotz dendakoak aukeratu zituzten.

### BAZKIDE BERRIAK EGITEKO DEIALDIA

Aretxartek gaur egun 38 bazkide ditu. Hala ere, gehiago izateko asmoz, bazkide berriak egiteko deialdia egin dute. Elkarteko kide izateak dituen onurak azpimarratu zituzten batzarrean.



MIRARI ALTUBE

Aretxarteko bazkide ugari hartu zuen parte eguaztenean egindako batzarrean.

ARRASATE

CERRAJERAKO URBANIZAZIO LANAK

## Kontzezinoko zubi berria aurrera doa; gero biribilarekin hasiko dira

Cerrajerako urbanizaziorako zubi berria Errege osterako bukatzekotan

UBANE MADERA

Cerrajerako etxebizitzetara aurrera doa. Oraingo astean, urbanizazioko zubi berriaren habeak ipini dituzte. Bukatuta koan, biribilarekin hasiko dira.

Cerrajerako etxebizitzetara sartzeko zubi berriaren oinarria ipini dute oraingo astean (zubia eusten duten zazpi habeak, hain justu). Kontzezino izena hartuko du zubi berriak eta ondoan duen San Josepe zubia ordezkatuko du.

Cerrajerako etxebizitzetara urbanizazio lanen barruan ari dira zubi berria egiten. Eta Errege osterako bukatzea espero dute. Gero, Kontzezinoko biribilean hasiko dira lanean. Izan ere, biribil hori handitu egingo dute, Araba Etorbidea, Bañez Doktorea kalea eta Cerrajerako urbanizazioko zirkulazioa hobeto bideratzeko. Aste Santurako lanok bukatuta egotea aurrez ikusi dute.

### SAN JOSEPEKO TUNELA

Bestalde, zutik utzi duten Cerrajerako pabilioia berritu egingo dute. Izan ere, haren azpitik pasatuko da urbanizazio berriaren



UBANE MADERA

Oraingo astean ipini dituzte zubi berriaren habeak. 17 tona ditu bakoitzak.

errepide nagusia. Berritutako tunel hori argiztatzeko argi bereziak ipiniko dituzte.

Lan horiek guztiek 74 milioi pezeta pasatxo balioko dute.

### ERAIKINA BOTAKO DUTE

Bestalde, lan horiekin batera, Deba erreka bideratzeko lanak ere egingo dituzte. Horien artean, eta

legeak esaten duenari kasu egin ez, orain Saiolan dagoen lekuko eraikina bota egingo dute (Cerrajerako erlojudun eraikina, hain zuzen ere).

Era berean, Kontzezinoko zubi berritik Saiolaneko eraikinerainoko oinezkoendako bidea egingo dute erreka eskumako bazterrean.

ARAMAIO

LEINTZ GATZAGA

IV. LANGINTZEN FERIXA EGINGO DA DOMEKAN

## Asteburu mamitsua izango da San Martin Eguna ospatzeko

UBANE MADERA

San Martin dela eta, asteburuan makina bat ekintza izango dira Aramaion. Horrela, bada, zapatuan, *Aramaioko joko eta jolasak* izeneko liburua aurkeztuko dute 12:30ean kultura etxean. Garbiñe Insausti eta Patxi Aizpurua egileek liburuaren nondik norakak izango dituzte hizpide. Arratsaldean, berriz, Txirritola elkarteak antolatutako II. Partxis Txapelketa izango da osoko bilkura aretoan, 16:30ean; hiru taldetan dago banatuta txapelketa: 6-12 urtekoak, 13-16 urtekoak eta 17-100 urtekoak. Horrez gain, trikitilariak kalejiran ibiliko dira arratsaldean. Eta iluntze partean, 19:30ean, buzkantzak probatzeko aukera izango da herriko plazan, Trikitixa Taldearen eskutik. Gauean, berriz, antzerkia izango da kultura etxean. 22:00etan izango da eta *Historia de Mujeres* lana antzeztuko dute. Domekan, bestalde, karobian egindako garbiketa lanen berri emango dute 10:00etatik 12:00etara, eta plazan puzgarriak izango dira.

## San Milixan jaiak ospatzeko, dena gertu

*Euskal Herriko hamabost artisau egongo dira*

MIRARI ALTUBE

Domekan egingo da San Milixanetako IX. Langintzen Ferixa. Goizeko 10:30ean hasita, hamabost artisau izango dira hainbat arlotan: besteak beste, zapatagintza, zeramika, bitxiak, beira, larrugintza eta egurrezko jostailuak. Artisauen lanak ikustez

gain, irametak zelan egiten diren ikusteko aukera ere izango da. Basoan, idi eta guzti, irak jaso eta eguerdirako Gatzagara helduko dira, han batutako guztiei metak zelan egiten diren erakusteko.

Gatzagara datorrenak, gainera, urtero legez, doan izango du Dorletatik herrira egun osoan ibiliko den autobusa.



GARBIÑE BEITIA

Larrugintza, oihalgintza..., era askotako artisautza izango da ikusgai.

**OPEL**

# Zatoz urte bukaerako deskontuak aprobetxatzera!

ZERBITZU OFIZIALA **TAKOLO AUTOAK** KONTZESIONARIO OFIZIALA **TALLERES OLA**

Araba etorbidea • 943 77 30 10 • ARRASATE Olabarrena auzoa • 943 76 33 44 • BERGARA

Erdiko kale, 32  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 16 12

Gizonak Emakumeak

# 450

JANTZIAK

Ibai-arteren bazkide



## Zabalik

PATXI  
MONTERO

## BioBask???

**A**ukeratsen hasita, nork nahi du bere etxean jaten dituenak garbiak, seguruak, pozoirik eta gehigarri susmagarririk gabekoak, naturalak, osasuntsuak, biziak... izatea? Nork auskeratuko luke hemen jaten direnak hemen bertan produzitutakoak izan daitezela eta, gainera, gure ingurumenean degradaziorik edo kutsadurarik sortu gabe?

Administrazioko arduradunek oso gustukoa dute nekazaritza garbi eta naturalaz hitz egitea, ingurumenaz, gure elikagaien kalitateaz, horien guztien gainean duten arduraz, batez ere, gertatutako eskandaluak gertatuta... Beste kontu bat da parrafada horiek materializatzeko egiten dutena. Euskadin, Nekazaritza Ekologikoa garatzeko lana lurraldeetako elkarteek eta federazioak egiten dute. Administrazioek dirua ematen dute bakarrik; baina zenbat? Iaz, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinek eta hiru foru aldundiek emandakoa kontuan hartuta, guztira hamabi milioi pasatxo. Eta aurten? Momentuz ia beste horrenbeste aitortuta dauka, baina erantzun potoloena ez da oraindik etorri, eta azaroan gaude. Hori guztia egiteko: ikerketa, formazioa, garapena, laguntza, arreta, promozioa, zabaltea... Araban, 800.000 pezeta eman dizkio foru aldundiak Arabako elkarteari, bere funtzionamendu gastuei aurre egiteko, baina 900.000 pezeta Laudioko futbito txapelketari.

Gipuzkoan hiru milioi ematen ditu urtean foru aldundiak Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoa garatzeko. Eta ezin gara kezatu, gehien ematen duen aldundia baita. Baina GOIENKARIAn irakurri nuenez, Elgetan, nire etxe aurreko errepede zatia konpontzeko, kilometro bat gehienera, 21 milioi gastatu dira. Ez dut konparatzen hasi nahi, eta ez diet futbito txapelketari eta nire etxe aurreko errepedeari garrantzirik kendu nahi, baina, ez dakit... Azkena: Eusko Jaurlaritzak 4.500 milioi bideratuko ditu datozen lau urteetan BioBask proiektu estrategikoa abian jartzeko: 25 enpresa berri, 1.000 lanpostu... Plan honek ez dauka, ordea, Nekazaritza Biologikoarekin zer ikusirik, bioteknologiarekin baizik. Hau da, juxtu alderantzizkoa. 'Euskadik ezin du etorkizunaren trena galdu.' Berriz ere gehiago, azkarrago, eta merkeago produzitzea. Bitartean, bio guztien artean logikoenak, Euskadi osorako lanean duen koordinatzaile bakarrari egun osoko soldata ordaindu ezinean jarraituko du.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 72  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: iritzia@goiena.com



## Pisto joan zaigu

**J**esus Mari Gaztelu Alberdi hil dela jentzunda, inor gutxi jabetuko zen gure Pisto joan zaigula; izan ere, beste izenik ez zuen Uberako mutilak jende gehienarentzat. Biriketako minbizi azkar batek eraman du 47 urterekin, aita lehenengoz izateko bi hilabete falta zirenean.

"Zenbat barre eragin doskun!", esaten zuen hainbatek, malkoei eutsi ezinda, hileta egunean. Lagunarteko gatza eta pipermina zen Pisto. Urrinera etortzen ikustea nahikoa denon aurpegia argitzeko. Txirrita edo Lazkao Txiki paregabeak izango ziren bere denboran bertotan edo txisteak kontatzen, baina prosan, batez ere ordu batzuetatik aurrera, Pisto lako gutxi ezagutu da paraje hauetan. "Gai librian, puntu bakarrekuan, gu apurtzekorik etxaok". Eta egia zen. Ez du ezer idatzita utzi, Aita Zavalak ziurrenik ez du libururik aterako, baina ezagutu genuen askorentzat umoregilerik onena izan da. Hiztun aparta, irudimena saltzeko beste, bihurria, zirikalaria. "Atzo Pisto jeuan ganaua. Zertzuk egin jittuan eta zertzuk esan jittuan. Barre... Agujetak jauzkat gorputz guztian". Haren kontura sarri egin ditugu "etzindako barriak", lehenagoko zaharrek esaten duten bezala. Bere buruari egiten zion lehenengo, eta gero mundu guztiari. "Adarra jo, baita Espoloiko kioskuai be". Ez zuen kristaurik bake-

an utziko. Baina oso nekez minduko zen inor haren jardunarekin, nahiz eta sekulako zartadak entzun. Berdekeriarik edo astakeriarik handiena ere aurrera pasatzen zen, eragiten zituen algarek dena gozaten baitzuten. "Aizu, Mari, egingo al degu saio nazkagarri hori?". Edozeri ateratzen zion punta, eta gutxien uste zen lekutik, gainera.

"Txarrixoi, neri entzundako kontuak eskribidu eta majo bizi haiz hi", esaten zidan inoiz, eta bazuen egia puntua. "Pisto, oin esandako hori gizurra galanta" esaten bazioten, "gizurra ez, asmautakua. Oso diferentziak dittuk!", erantzun ohi zuen. Literaturaren definizio biritu. Goi mailako literatura egiten zuelakoan nago, liburuetan bildu ezindakoa, baina literaturaren eginkizun nagusiak beregan zituena: dibertitzea eta errealtatearen alderdi ezkutu eta ezustekoak bistaratzea.

Beste gauza on asko esan daiteke Pisto, baina bego honenbestez. Bere lagunon aldetik gure doluminik sentikorrenak eta animorik beroenak Arantxari eta Pistoren, Jesus Mari Gazteluren familiari.

JUAN MARTIN ELEXPURU  
Ubera

Bergarako Kartzela  
Zaharraren itxiera

**J**ardunek herritarrei eta elkarteetako bazkideei ondorengo azalpena eman nahi die, urriaren 26an Jardun Elkarteetako bulegoak eta Gaztetxea prezintatu ondoren:

Badira bi urte Bergarako Udalak proposamen bat luzatu ziola Jarduni, ondorengo bi puntuak izanik proposamen honen ardatz nagusiak: 1. Gartzeleroaren etxeko behe solairuan Gaztetxeari tokia egitea. 2. Udalak Jardun Elkarteari egindako proposamena: epe ertainera Jardun elkartearendako Kultur Etxearen atzeko eraikina berreraikitzea. Proposamena aztertu eta onartu egin zuen elkarteak. Orduetik, talde bakoitzak bere tokia zuen gartzeleroaren etxean. Ekin tzak burutzeko bi taldeok Kartzela Zaharra konpartitu dute.

Proposamen honi Jardun Elkarteak baiezkoa eman eta gero, Gaztetxea gar-

tzeleroaren etxeko behe solairuan kokatu zen.

Guztia horrela gauzaturik, 2000ko urtarrilean Jardunek bere beharren arabera eginiko antolaketa proiektua luzatu zion Udalari. Ondoren, 2000ko otsailean, Udalak Santa Ana parkeko etxea oinarritzat hartuta, beronen azaleraren banaketa eta erabilera planoak aurkeztu zituen, bertan Jardunen beharrak txertatuz. Udalak proposatutako proiektua aztertu ondoren, Jardunek bazkide baten laguntzaz buruturiko proiektu berri bat aurkeztu zuen Udalean 2001eko martxoan.

Bitartean, 2001eko udaberrian, Gaztetxeak lokalaren egokitze obrak hasi zituen. Jardunek bulegoetako paretetan pitzadurak azaldu ziren. Jarduneko langileek, eraikinaren egoeraz kezkatutik, gertatutakoa eta beraien kezka Bergarako Gaztetxeari eta Bergarako Udalari helarazi zieten. 2001eko ekainean, Udaleko tekniko bat etorri zen bertan gertatutakoa baloratzerako, baina Jardun elkarteari ez zitzaion azalpenik helarazi.

Hau dela eta, 2001eko urriaren 11n, idatzi bati eman zitzaion sarrera Bergarako Udaletxean. Bertan, gartzeleroaren etxearen eraikinaren azterketa egin zezala eta azterketaren emaitzak Jardun Elkarteari komunikatzeko eskatu zitzaion.

2001eko urriaren 26an, (egubakoitza, arratsaldeko 6etan). Bergarako Udalzainen eskutik Bergarako Udalean urriaren 25ean sinatutako dekretu bat jaso zuen. Bertan, "eraikinaren egituraren egoera oso arriskutsua dela kontuan izanik, eraikina prezintatzeko erabakiarekin". Ordubeteko geroago, dekretuak aipatzen zuen prezintoa burutu zuten Bergarako udaltzainek.

Honen guztiaren ondoren, Jardun elkarteak zera adierazi nahi du:

- Udalak gai honen inguruan eraman duen prozedura desegokia izan dela.
- Jardun elkarteetako bulegoak Kultur Etxeko sotanoan kokatuko direla, probisionalki.
- Bestalde, Jardunek burutzen dituen ekintza desberdinak (trikiti eskola, eskulan ikastaroak, eskola aisialdiak, e.a.) Kartzela Zaharrean burutuko direla. Jardunek burutzen dituen ekintzetan aldaketarik egongo balitz, jakinaren gainean utziko lituzke bazkide eta herritarrek.

IDOIA OLANO (JARDUNEKO IDAZKARIA)  
Bergara

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE





## Bidali egin gaituzte

Gobernu batzordetik EAJ-EAk kanporatu egin gaitu, guk konponbiderako proposamena egin ostean. Gora-behera hauen ostean Elgetako Batasunakook egoera larrian gelditu gara, orain arte udaletxean egindako lana zertan geldituko ote denaren zalantzarekin.

Lana positiboa izan dela uste dugu. Baserritarren batzordean proposamen berriak egin dira eta begi onez ikusi dira, auzo lanean egindako lanak eta abar. Kultura, euskara eta jaien batzordean ere gauza politak egitea lortu dira, Gabonetako ekitaldiak indartu, bertsolariak, antzerki lanak, jaien batzordea ere berpiztea lortu dugu eta goi mailako jaiak antolatzea lortu dugu azken bi urteotan. Hau guztia ez zen posible izango jendearen parte-hartzerik gabe. Eta hau da, hain zuzen, guk udaletxeko beste batzordeetarako eta funtzionamendu orokorrerako proposatzen dugun bidea: parte-hartzea.

Guk gure batzordeetan lortu dugu neurri batean, beti egin daiteke hobeto, baina udaletxeko beste arlo guztietan hau lortu beharrean badirudi atzera egin dugula. Arazoak ditugu plenoak arazoizko orduetan egiteko, arautegian plenoak gaueko 9etan egitea onartuta dagoenean, orain gobernu batzordea ere itxia izango da eta ezingo dugu bertan esaten dena ere entzun; batzorde batzuk eguerdian egingo dira, normalean jendea lanean egoten denean, eta beraz ezingo du bertan parte hartu.

Jendearekin harreman zuzena izan behar du udaletxeak eta horretarako ahalegina egin behar da erraztasunak jarri, eta ez trabak.

Esan bezala egoera larria, eta erabakia hartzea ez da erraza izan, baina orain arte lortutakoa mantentzeko eta aurrera begira gauza gehiago lortzeko, batzordeetako ardurarekin jarraitzea erabaki dugu, batez ere egindako herri batzarrean jendearen iritzia entzun eta kontuan hartu eta gero.

Lan hau egiteko baldintza minimo batzuk betetzea ezinbestekoa dela uste dugu. Gure lanaren emaitzak hor daude. Horrela jarraitzeko prest gaude eta hobetzeko ere bai, horrela izan behar dela uste dugu gainera herritarren zati handi batek horrela eskatu zigulako hauteskundeetan, beraz, garbi dago guk ere aurrekontua izan behar dugula eta udaletxeko beste tresnak erabiltzeko aukera izan behar dugula, gure lana betetzeko baldintza duin batzuk izateko.

BATASUNA  
Elgeta

## Poltsa

Gezurra dirudi, eta ohartu ere ez gara egiten, nola gure eguneroko bizimodu erabiltzen dugun hainbat objektu, ustez arrunt kaltegabe, bilaka daitezkeen une jakin batean arma edo tresna borbortiz. Eta horixe bera da guztia pasatakoan geratu zaidan sentsazio gordinetako bat, alegia, nola plastikozko boltsa ziztrin batek (bai, bai, Eroskira goazenean kutxazain irribarretsu horrek barra-barra ematen dizkigun horietakoak, edo tomateak pisatzera zoazela inkonszienteki pilatik hartzen duzun horixe bera) eragin lezakeen pertsona batengan horrenbeste sufri-mendu.

Gela hartan sartu nindutenean suma nezakeen zer gertatuko zitzaidan momentu hartatik aurrera. Entrega gauzatu bezain pronto furgoi polizialetan jasotako kolpe eta irainak, gerora zetorkidanaren aurrekari besterik ez zirenaz berehala jabetu nintzen. Ispilu faltsua parez-pare nuela eserarazi ninduten. Eskuak bizkarraldean eskuburdinez loturik eta oinak aulkiaren hankei lotuta. Oihu eta irainen artean, beraietako bat besoetatik atzerantz tiraka nuela, beste batek boltsa bat ezarri zidan buruan. Orduan hasi zen sufrikarioa. Sakon arnasa hartzen saiatzen zara, airea biriketean ahalik eta gehien mantentzen, alferrik zabilzala dakizun arren; gainera, orduan, hirugarren bat sartzen da eskenan, sabel eta bularraldean kolpe eta ukabildakadak emanez, duzunik eta azken hatsa botatzeaz arduratuko dena. Itolarria, itotzen ari zara eta ez duzu aterabiderik. Agonia, birrikak uzkur somatzen dituzu, eztarriko muskuluak konbulsioka hasten dira, nola edo hala arnasa hartu nahi duzu, baina ezin... Plastikoa apurtzen saiatzen zara, kosta ala kosta, mingainaz, horzkatuz, baina itolarriak eta etengabeko kolpeek ez dizute uzten, geroz eta ahulago zaude, gorputza aldentzen somatzen duzu, itotzear zaude, ahulezia, itolarria, kolpeak, oihuak, eta bazoaz...

Normalean nahiko kontrolatzen dute egoera (akaso horregatik erabiltzen dituzte poltsa gardenak, biktimaren aurpegia hobeto ikusteko) eta asfixiaren muga ukitu ahala poltsa eranzen dizute burutik. Ordurako, beharbada, jadanik konortea galdua duzu, baina beraien medikua arduratuko da berriz ere oinaze bera paira dezazun ziurtatzeaz.

Batzuetan, fortzaren fortzaz plastikozko poltsan zulotxo bat egitea lortzen duzu, edo haiek esperantza txiki hori izan dezazun uzten dute. Beraien jokoaren parte da. Berehala poltsa zaharra kendu eta berria janzen dizute. Izan ere, edonon topa baitezakegu plastikozko poltsa ziztrin

bat balizko estatu demokrata hauen estol-detan, bai, bai, tomateak pisatzeko erabili ohi dugun horixe bera.

AITOR ELORREGI (NAN: 44.551.938)  
Arrasate

## PNV/EA hurrengoak

Astearteko AAB eta Senideak-Gureak Aeko kide 13 herritarren atxiloketen aurrean gure jarrera adierazi nahi dugu. Atxiloketok Euskal Herriko seme-alabengan historian ezarritako injustizian beste jauzi kualitatibo bat izan dira. Iraganean, Egin-en eta Egin irratia iren itxiera eragin zuen operazioa egin zuten; Ekinen hainbat kide espetxeratu zituzten, eta batzuek oraindik espetxean jarraitzen dute; Joxemi Zumalabe, Bai Euskal Herriari eta ABKren kontra jo zuten gero, eta AEK kriminalizatzeko saio gogorra ere egin dute. Orain, AAB eta Senideak-Gureak elkartearen kontra jo dute.

Euskal preso eta errefuxiatuen eskubide guztiak errespetatu daitezkeen, tortura desager dadin, amnistia eta konponbide demokratikoaren alde, eta horregatik jo du Garzonek bi elkarteon aurka. Estrategia horretan, komunikabide gehien laguntzaz sasi-argudioak eman dituzte operazioa mozorrotzeko, zio politikoa dago honen atzean, politika errepresiboren beste pauso bat. Atxilotutako gizon eta emakumeak terrorista arriskutsuak bailiran aurkeztu dituzte, Euskal Preso Politikoen kolektiboari babesa ematea leporatuz. Guk delitu hori geure egiten dugu, hori baita gure izatearen arrazoa. Gure errepresaliatu politikoa ekonomikoki laguntzea leporatzen diete. Duela gutxi, AABk bere balantze ekonomiko, beharizan, gastu eta banaketaren berri eman dio Euskal Herri osoari.

Halako gertaerak gatazkaren benetako irtenbide demokratikotik urruntzen gaituzte. Euskal gizarteari honi guztiari aurre egiteko eskatzen diogu. Ideiak espetxeratzen, norbanako eta kolektiboaren oinarriko eskubideak espetxeratu eta erreprimitzen uzten badiegu, etorkizun hurbilean edozein euskal herritar terroristat hartua izan daiteke.

PNV eta EA: ez ezazue saldu herriaren etorkizuna, trikimailu politikoa hauen aurrean isiltzen. Garzon-ek, poliziak eta Estatuak badituzte tresnak Euskal Herria zigortzeko zuek lagundu gabe. Gaur "betikoak" dira, bihar edozein abertzale izango da terrorista.

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK  
Arrasate

## Gaztetxeen alde

Kriminalizatu nahi gaituzte, baita izutu ere, muntaia polizial, hedabide kanpaina, adierazpen politiko zein "ezezagunen" eraso bidez.

Hau guztia min ematen diegula. Beraien gizarte bakanaren ereduari min ematen diogu modu ezberdin askotan. Beraien jabego pribatuaren kontzeptu sakrosaindua baldintzatzen dugu okupatzean; gizabanakoaren harremana eta talde lana gure bizitzaren alderdi ugari-tara hedatzen den konpetibitatearen gaitetik jartzen dugu; euren ingurua hobetu nahi duten pertsona aktibo gisa gartzeta konformismo pasiboaren menpe nahi gaituztenen aurrean; merkatuaren menpeko ikus-leiho kulturaren aurka, gure nortasun ezaugarriak bermatuko dituen kultura herrikoia bat bultzatzen dugu; eta hau gutxi balitz, momentu bakoitzaz gozatuz egiten dugu lan, euren aurpegi eta jarrera serio eta ilunak alde batera utziz. Ghetto bihurtu nahi gaituzte, gainontzeko gizartetik isolatuz, berarekiko arrisku gisa aurkeztuz, modu errazean eraso egin ahal izateko. Baina ez dute euren helburua lortzen, gure lana gizarteari zuzendua dagoelako.

Egiten dugunak min ematen die, baita hori egiteko moduak ere. Autogestioaren bidez, maila pertsonal zein kolektiboan buruaskiak izaten ikasten dugu. Gure jarduerak aurrera eramateko ez gaude instituzio zein gobernariaren menpe, kontrol sozialaren garaian barkatu ezineko bekatua. Gure kaleetan leku guztietatik agertzen den antolakuntza bertikalarekin apurtzen dugu, gobernari eta teknokratik guri komeni zaiguna guk geuk baino hobeto dakitela esaten duten bitartean. Erabakiak modu asanblearioan hartzen ditugu, modu horizontalean, guztion parte hartzea bultzatuz, ikusten dugunarekiko eta gure buruekiko jarrera kritikoa garatuz. Autogestio eta asanblearismoak txanpon beraren bi aurpegiak osatzen dituzte; guztion artean, behetik, eginiko eraldaketa soziala.

Salatzen ari garen okupazio mugimenduaren, gaztetxeen eta Gazte Asanbladen aurkako kanpaina honek ez du ezer lortuko. Injustizia sozialak salatzen jarraituko dugu, kultura herrikoia bultzatuz, espekulazioaren aurrean, okupatuz. Gure umorea egungoak bezalako egoera gogorretan islatuz, gure erasotzaileei aurre egingez, baina, batez ere, beraietaz barre egingez. Horrexegatik, bihar, zapatua, manifestazioa egingo dugu gaztetxeen alde Bilbon, La Casillatik irtenda, 17:00etan.

EUSKAL HERRIKO GAZTETXE ETA  
GAZTE ASANBLADAK

### DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Saltokiek urtean lau jai egunetan zabaltzeari zer irizten diozu?*

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkoroberebar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK  
Goio Arana (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,  
Natali Martinez, Izaskun Bolnaga,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate, Gari Bragado

HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Julen Aranguren

**Goiena**  
Kommunikazio Zehitzuak

LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Inazio Arregi



## Aitor Arantzabal

BATASUNAKO DEBAGOIENENKO KOORDINATZAILEA

# “Batasunaren erabaki gunea eta oinarria herria izango da, beti ere nazio mailako estrategiarekin bat eginik”

**U**rteak daramatza ezker abertzaleko hainbat taldetan lanean. Mugimendu ekologistetan aritua, azken sei urteotan HB eta EHko zinegotzia izan da Bergarako Udalean; orain dela gutxi laga du kargu hori. Gaur egun, Batasuna erakunde sortu berriaren koordinatzailea da gure ibarrean.

ENEKO AZKARATE

**Batasunak ildo politikoa eztabaidatzen jardun du azken asteotan. Zelan joan dira lanak?**

Bi herri batzar egin ditugu herri guztietan, eta horretaz gain, Batzar Nazionala. Aurtengo eta datorren urteko ildo politikoa finkatu dugu. Eztabaida saioak ondo joan dira. Hala ere, kontuan izan behar da Batasuna joan den ekainaren 21ean sortu zela eta ordutik egituraketa prozesu batean murgilduta dagoela. Irailtik abendura bitartean, ildo politikoa finkatu, herrietan erakunde egituratu eta, azkenik, erakunde nazio mailan ondo egituratzea da asmoa. Une honetan herri mailan gabiltza lanean. Ikasturte politiko berriari begira, herrien egoera sozio-politikoaren oinarritzko azterketa edo diagnostikoa egingo dugu lehenengo eta, gero, arloz arloko azterketa egingo dugu: irakaskuntza, euskara, komunikazio arloa... Azterketa zehatzagoak egingo ditugu herrietako arloko eragile nagusiekin. Helburua herriaren argazkia egitea da eta, horren arabera, lehentasunak finkatzea. Horretan dihardugu.

**Batasunaren ildo politikoa eztabaidatu duzuela aipatu duzu. Ideologikoki zelan definitzen da Batasuna?**

Gure helburu estrategikoak sozialismoa eta independentzia dira. Bestalde, gure ibilbidea luzea da. Esan dezakegu, hortaz, erakunde eraberritu egin dugula. Ez dugu erakunde berria sortu, lehengo HB edo EH eraberritu baizik. Batasuna urtebete luzeko eztabaida prozesuaren emaitza da. Beharbada, hasierako helburu guztiak ez dira bete, zeren eta hasierako asmoa ezkertiar eta abertzale guztien bilgune izango zen erakunde eraberritua sortzea zen. Uste dugu, benetan, hori ez dugula lortu, baina hala ere bide horretatik segituko dugu. Edozelan ere, erakunde nazional bat egituratzea zen beste helburu bat eta hori lortu dugu. HB eta EH ez bezala, Batasuna erakunde nazionala da, hau da, zazpi herrialdeetan hedatuta dago. Horretaz gain, HBk oso egitura zaharkitua zuen, eta egitura horrekin oso zaila zen helburuetara iristea. Hori konpontzeko barne prozesua jarri genuen abian, eta amaieran lan estilo berria abiatzea lortu dugula uste dut. Ezkertiarak izanik, herrietako mugimenduei garrantzi handia eman diegu, baina herrietako dinamikak eta nazio mailakoak uztartu behar genituen, azken honek bestea irentsi egiten zuen askotan. Orain, oster, alderantziz lan egingo dugu, hau da, erabaki gunea eta oinarria herria izango da, beti ere nazio mailako estrategiarekin bat eginik. Hortaz, Batasunarendako herrigintza izango da, aurrerantzean, lanik garrantzitsuenak.

**Nazio mailako erakunde da Batasuna, baina herrialde guztiak ez dira berdinak, eta Iparraldean, esaterako, arazoak izan ditu Batasuna prozesuak...**

Bai. Hor ere gauzak ez zaizkigu atera guk nahi bezala, eta gaur da eguna Iparraldean abertzale eta ezkerreko bi erakunde daudena: AB eta Batasuna. Horrela suertatu da. Abertzale Batasunak hautesleak elkarte izatetik alderdi politiko izate-

ra pasatzea erabaki du, eta hori errespetagarria da, nahiz eta guk aukera hori ez konpartitu. Hala ere, ateak ez daude itxita eta elkarlanerako bideak zabalik daude. Espero dugu etorkizunean bi erakundeon arteko harremana estua izatea eta, zergatik ez, biharko egunean berriz ere bat egitea. Argi esan behar dut, hala ere, ez dugula krisi egoerarik sumatzen Iparraldean.

**Hegoaldeko ikuspegitik sortutako erakunde dela aipatu da mugaz bestaldean.**

Argi dago herrialde bakoitzean egoera ezberdina bizi dela, eta herrialde berean ere herrietik herrira edo ibarretik ibarretara egoera aldatu egiten dela. Kontu hau behin eta berriz atera da Batasuna prozesuan. Gehiago esango dut, hasierako asmoa Batasuna prozesua bi epetan egitea zen, baina Iparraldeko militante askoren eskariari erantzunez une berean jarri zen abian bai Hegoaldean eta bai Iparraldean. Ez nuke esango horrela egin izana hanka sartzea izan denik, azken batean, hala egiteko eskaria Iparraldetik egin zelako. Honekin esan nahi dut ez dela egia Hegoaldeko ikuspuntutik egin dela Batasuna prozesua.

**Aralarren proposamenetako bat militanteen errolda eta alderdi politikoa sortzea zen. Zergatik ez duzue bide hori aukeratu?**

Aralarren proposamenak prozesuan parte hartu zuten %9k aukeratu zituen eta, hain justu, militanteen erroldarenak oraindik eta babes gutxiago izan zuen. Beraz, ez zen aurrera atera. Arrazoiak? Begi-bistakoa denez, zoritxarrez, Estatu behin eta berriz dabil ezker abertzalea erasotzen. Hori horrela, militanteen errolda egitea etsaiari erraztasunak ematea izango litzateke. Bestalde, gurea erakunde ezkertiar eta zabala izanik, gure batzarretara joateko ateak zabalik daude herritar guztiendako. Edozein modutan ere, Batasunkidearen figura sortu dugu, gurekin lanean dihardutenak ondo ezagutu ditzagun.

### BATASUNA IPARRALDEAN

**“Hasierako asmoa Batasuna prozesua bi epetan egitea zen, baina Iparraldeko militante askoren eskariari erantzunez une berean jarri zen abian bai Hegoaldean eta bai Iparraldean”**

### MILITANTEEN ERROLDA

**“Estatu behin eta berriz dabil ezker abertzalea erasotzen. Hori horrela, militanteen errolda egitea etsaiari erraztasunak ematea izango litzateke”**

### ARALAR

**“Aralar ezker abertzalea zatikatzen etorri da, beraz, ezker abertzaleari min egitera etorri da. Horregatik, ez dugu kokatzen ezker abertzalean”**

### EZKER ABERTZALEAREN AURKAKO OPERAZIOAK

**“Gure helburuetara heltzeko urrats sendoak ematen ari gara eta horregatik datoz Estatuaren estrategian kokatzen ditugun Garzonen operazioak”**







ENEKO AZKARATE

**Ezker abertzaleak hauteskunde emaitzarik kaskarrenak lortu eta gutxira sortu zen Batasuna erakundea. Pentsa dezakegu, hortaz, ez datozkizuela garai onenak, ezta?**

Kritika ugari jaso ditugu bai barrutik zein kanpotik, Batasuna prozesua ez genuelako une egokienean abiatu. Hori onargarria da, su-etena hautsi ondoren abiatu genuelako, baina ez zen alde zuzenetik pentsatutakoa izan. EH bi arrazoi nagusigatik sortu zen: batetik, ezker abertzalearen aurkako eraso gero eta gogorragoa zelako, eta HB legez kanpo uzteko arriskua sumatzen genuelako. Bestetik, euren burua ezkerreko eta abertzale zuten hainbat eta hainbat sektorerengana zabaltzea, indarrak metatzea eta erakunde berri eta sendo bat sortzea ezinbesteko ikusten genuelako. EH korrika eta presaka sortu zen 1998an, batez ere begi-bistan geneuzkan Legebiltzarrerako eta Udaletako hauteskunderi begira. Aurreragorako laga genuen hausnarketa eta eztabaida prozesua eta, hain justu, su-etena hautsi zenean eta egoera politikoa oso nahasia zenean abiatu genuen Batasuna prozesua. Une egokia izan ez arren, eztabaida beharrezkoa zen, eta horregatik ekin genion lanari. Kontuak kontu, eztabaida prozesua benetan eredugarria izan dela uste dut.

**Azken hauteskundeetako emaitza kaskarren arrazoiak zeintzuk dira?**

Arrazoiok aztertzeak batzarrak egin dira herri guztietan. Oso batzar jendetsuak izan dira, gainera. Arrazoiaren artean, hauteskunderen atarian sortutako giro politikoa aipatzen zuten gehienek. Hau da, PPK eta PSOEek Euskal Herriaren aurka hasitako estrategiaren aurrean, eta bi alderdiok Jaurlaritzak kudeatzeko izan zezaketen aukeren aurrean, jendeak EAJ-EAri botoa ematea erabaki zuela. Beste arrazoi batzuk? Jendeak ez zuen ulertu EHk egin zuen apustua, hain justu, gaur egungo marko juridiko-politikoa gainditzearen aldeko apustua; ezta Eusko Legebiltzarra

lagatzea ere; ezta hainbat gai erabakior eta garrantzitsu eztabaidatzen ziren bilkuretan parte hartu ez izana... Emaitza kaskar horien erantzule nagusiak geu gara, hori onartzen dugu, baina izan dira beste faktore batzuk ere, hauteskunderen atarian Aralarrek egindako joku zikina, borroka armatua... Edozein modutan, marko berri baterako apustua egiten du Batasunak, eta estrategia horri eutsiko diogu.

**Udal hauteskundeak eta Nafarroako Parlamenturakoak ez dira oso urrun. Bestalde, ikuskizun dago Aralar zertan geratuko den. Hauteskunderi begira harremanik izan duzue Aralarrekin?**

Aralar ezker abertzalea zatikatzerari da, beraz, ezker abertzaleari min egitera etorri da. Horregatik, ez dugu kokatzen ezker abertzalean. Pare bat bider elkartu gara Aralarreko kideekin eta euren jarreraren gainean Batasunak zer iritzi duen azaldu diegu eta kitto, besterik ez. Aurrerantzean ez dugu harremanik izango. Gaur egun, egoera politikoa ez da guztiok nahi genukeen bezain ona, baina badakigu egun batetik bestera alda daitekeela. Hor dugu Estatuaren eraso estrategia, hor dugu EAJ gurekin bildu ere ez dela egiten... Egoera horretan kokatzen dugu ezker abertzalea ahultzea helburu daukaten Aralar moduko eragileak...

**Batasuna terroristen zerrenda famatu horretan sartzeko asmoa agertu du Madrileko Gobernuak. Zer deritzozu?**

Beldurra badaukagu, baina kiniela joko horretan ez dugu sartu nahi. Amnistia Aldeko Batzordeen buruzagien atxiloteta, ezker abertzaleko erakunde baten aurkako zazpigarren eraso izan da, eta horren aurrean hausnarketa bat egiten dugu: gure helburuetara heltzeko urrats sendoak ematen ari gara, eta horregatik datoz Estatuaren estrategian kokatzen ditugun Garzonen operazioak. Bidea ondo definituta daukagunez eta lana ondo egiten ari garenez, eraso horiek guztiak datoz. Estatua oztupoak jartzen saiatuko da, baina paranoia horrekin ezin gara bizi.



ENEKO AZKARATE

## “Ipar Irlandako bake prozesua aspalditik dator”

**Estatu Batuetako erasoak eta Afganistango gerrak eraginik badu Batasunarengan?**

Eraso haien ondorioak mundu osoak jasango ditu, eta dudarik ez herri honen independentziaren alde lanean diharduen erakunde batek. Egoera honek kezkatu jaritzen gaitu, bai, hori onartu beharra dago, irtenbide polizialen aldeko apustua egiten dutelako Frantziar eta Espainiar Estatuak.

**Sinn Feinek IRAri armak lagatzeko eskatu dion moduan, Batasunak ETAri ere eskari hori egitea proposatu dute alderdi politiko gehienek. Zeozertarako balioko luke horrek?**

IRA armak uzteko prest agertu baldin bada, beste askok ere hainbat urrats eman dituztelako izan da. Ipar Irlandako bake prozesua ez da gaurko kontua, aspalditik datorrena baizik. Britainia Handiak, esaterako,

autodeterminazio eskubidea aitortu du. Espainiako Gobernuak ere Euskal Herriaren lurraldetasun eta autodeterminazio eskubideak aitortuko balitu, ez daukat dudarik ETA armak uzteko prest agertuko litzaitekeela. Baina ez gaude eskenatoki horretan. Beraz, ez dauka zentzurik Batasunak eskari hori egiteak. Estatuak Euskal Herriak dituen eskubideen urraketaren gaineko aipamenik ez da egiten. Hori larria da.



# Euskarazko kirol fitxa gehiago

Deba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuek materiala sortzeko lau beka eman dituzte

**D**eba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuek euskarazko kirol materiala sortzeko XII. bekak banatu dituzte. Aurtengo deialdian natura ekintzak, oinarrizko soin hezkuntza, xakea eta jarduera fisikoko eta kiroleko oinarrizko hizkuntza lantzea aurrez ikusten da.

Epaimahaiak 500.000 pezetako lau beka eskaintzea erabaki zuen joan den urriaren 26an Bergaran egindako batzarrean: naturako ekintzen alorrean, Damaso Gallastegi bergararrak aurkeztutako proiektua onartu zuen; oinarrizko soin hezkuntzarena Alazne Mutiloa hernaniarrak egingo du; xakeko fitxak Xabier Sarasua atxabaltarrari agindu dizkiote; eta, azkenik, jarduera fisikoa eta kiroleko oinarrizko hizkuntzari dagozkionak Luix Mari Zulaika zarauztarrak egingo ditu. Bekak adjudikatzeko orduan, proposatutako fitxen interesa eta hizkuntzaren egokitasuna kontuan hartu zituen epaimahaiak.

Damaso Gallastegik landu beharreko naturako ekintzen fitxetan, eskalada, orientazioa eta mendizaletasuna jasoko dira. Guztira, 70 fitxa inguru izango dira. Oinarrizko soin hezkuntzen kasuan, berriz, 90 fitxa izango dira, eta xakeari dagokionez, 50-65 fitxa bitartean izatea jasotzen da oinarrietan.

Kirol materialak euskaraz sor-



Xabier Sarasua atxabaltarrak eskuratu du xakearen inguruko fitxak lantzeko beka.

tzeko bekek, batez ere, ikasleendako materiala sortzea dute helburu, euren kirol jardueretan euskararen erabilera bultzatzeko. Aurtengoa, esan bezala, beken XII. deialdia izan da. Kirol arloko euskarazko materialen eskasia dela eta, Deba arroko udalek oinarrizko kirol materialak euskaraz sortzeko bekak jarri zituzten abian. Orain arte, hainbat kiroleko materiala sortu izan da.

Antolatzaileek azpimarratu dute, "fitxa hauek eskola-kirolean, heziketa fisikoan, kirol taldeetan eta gimnasioetan ume eta gazteekin dabilzan teknikari eta irakasleei zuzendu gura dizkiegu".

**AEROBICA ETA PRESTAKUNTZA FISIKOA**  
Aurki, joan den urteko deialdian beka jaso zuten proiektuen emaitzak aurkeztuko dira. Deba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuek

material berria Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan aurkeztuko dute, abenduaren 6ko zuzian, hain zuzen ere.

Hortaz, aerobiceko eta prestakuntza fisikoko fitxak gertu izango dira laster. Horrela, material hori eskuragarri izango du, urtea amaitu baino lehen, gura duen guztiak.

EDU MENDIBIL

## Kirolabur

### FUTBOLA/UDA

**U**DA taldeak ligako lehenbiziko partidua galdu zuen asteburuan Oiartzunen: 1 eta 0 galdu zuen; hala ere, Enrique Nietoren taldeak lidertzan segitzen du. Domekan partidua zaila izango dute atxabaltarrek, sailkapeneko bigarren tokian dagoen Gure Txokoa izango dute eta bisitari Ibarako futbol zelaian, 16:30ean. UDAk hiru puntuko aldea ateratzen dio Gure Txokari.

### MOTORRA/CORCUERA

**A**nder Corcuera gidari arrasatearra 12. postuan sailkatu zen joan zen astebukaeran Estorilen jokaturako Renault Clio Txapelketako proba puntuagarrarian. Corcuera lasterketa bikaina egin zuen Portugalen. Irteeran 35 gidari izan ziren, eta entrenamenduetan marka onik lortu ez zenez, 27. postuan abiatu zen Ander. Lasterketan, berriz, trebezia handia azaldu zuen, eta 12. postuan helmugaratu zen. Hurrengo lasterketak azaroaren 18an eta abenduaren 2an izango ditu.

### FUTBOLA/ALOÑA-MENDI

**A**loña-Mendi futbol taldeak Hondarribia taldearen aurka jokatu du domekan Azkoagainen, 15:30ean. Oñatiarrek 2-1 galdu zuten azken jardunaldian Pasajes taldearen aurka. Gorka Zelaiaren taldea sailkapeneko 17. tokian dago, zortzi punturekin. Hondarribia hamargarrena da, 14 punturekin. Azken jardunaldian huts eta huts berdindu zuten etxean, Bergararen aurka.

## Debagoieneko bostehun korrikalari inguru domekan Behobia-Donostia proban

Guztira 10.000 partaide batuko dira Behobiako irteeran

Domekan jokatu den Behobia-Donostia korrika proban 500 debagoieindar inguru izango dira. Fortuna kirol taldeak antolatzen duen herri lasterketan, guztira,

10.000 lagun izatea espero da. Gutxituei dagokienez, 40 batek parte hartuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Proba goizeko 11:00etan hasiko da Behobian,

eta partaideek 20 kilometro egin beharko dituzte Boulebardeko helmugara iristeko. Gutxituen proba lehenago hasiko da, 10:30ean, hain zuzen. Debagoienean, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin zegoen lasterketan parte hartzeko izena emateko aukera, joan den azaroaren 3ra arte. Jasotako datuen arabera, Arrasaten 200 lagun inguruk eman dute izena; Bergaran, 125 korrikalarik; eta Oñatin, berriz, 65 izan dira izena eman dutenak. Kopuru horri Fortuna taldearen Donostiako egoitzan inskripzioa egin dutenak gehitu behar zaizkio.

**RITXAR FERNÁNDEZ, IAZKO ONENA**  
Joan den urteko ekitaldian, Ritxar Fernández oñatiarra izan genuen Debagoieneko onena Behobia-Donostia lasterketan. Fernández bederatzigarren izan zen iaz. /E.M.

## Joseba Larrinaga atleta atxabaltarra erretiratu egin da

Joseba Larrinaga 33 urteko korrikalari atxabaltarra atletismoa uztea erabaki du. Larrinaga bosgarren izan zen Sydney-ko Joko Paralinpiarretan, maratoi proban, 2000. urtean. Aurreko Jokotan, Atlanta-n, zilarrezko domina lortu zuen, 1996. urtean, hain zuzen. Era berean, bigarren sailkatu zen Birmingham-en eta Berlin-en jokaturako munduko txapelketetan. Emaitzarik onenak maratoi proban lortu baditu ere, 5.000 eta 10.000 metroko distantzietan primeran moldatu izan da Joseba.

**HAMAIIKA URTEKO IBILBIDEA**  
Atleta atxabaltarra duela 11 urte hasi zen maratoi probetan parte hartzen, Berlingo mundialean, hain justu. Orduetik hona maki bat aldiz bete du 42 kilometroko distantzia. Josebaren markarik onena bi ordu eta 35 minutu da. Sydney-tik bueltan, Larrina-



Joseba Larrinaga.

gak 2002ko mundialean parte hartzeko asmoa zuela adierazi zigen. Hala ere, atletismoan ez jarraitzeko erabakia hartu du. Joan den irailean entrenatzen hasi zen, baina ez du lehenengo motibazioa, eta lana eta kirola tarteatzea gero eta gehiago kostatzen zaiola dio. /E.M.

**ANTIQUARIO, BROKANTE  
ETA BILDUMEN  
ARRASATEKO I. AZOKA**

**Azaroaren 16tik 18ra**  
Goizean, 11:00etatik 14:00etara,  
eta arratsaldean, 17:00etatik 21:00etara

**ARRASATEKO  
Uarkape Pilotalekuan**



Podiuma


# Eduardo Jiménez | ARRASATE TRIATLOI TALDEKOA |

**E**duardo Jiménez gasteiztarrak (19 urte) lehenbiziko denboraldia egin du aurten Arrasate Triatloi Taldean, eta emaitza bikainak lortu ditu duatloi probetan. Joan zen urriaren 28an Ollaurin, Errioxan, hirugarren postuan sailkatu zen Espainiako Mendiko Duatloi Txapelketan, junior mailan. Apirilean jokatuak Euskadiko Duatloi Txapelketan ere hirugarren bronzeko domina eskuratu zuen bere kategorian.

**Denboraldi bukaerara sasoi iritsi zara. Pozik Ollaurin lortutako hirugarren postuarekin?**

Bai. Hiruzpalau hila-bete eman ditut Espainiako Mendiko Duatloi Txapelketa gertatzen eta gauzak gura bezala atera zaizkit. Mendiko duatloietan bestetan baino hobeto moldatzen naiz, eta lasterketa ona egin nuen Ollaurin. Lehenbizi 6,4 kilometro korrika, ondoren beste 23 bizikletan (mendiko bizikletarekin, pistetan) eta, azkenik, beste 3,2 kilometro korrika egin behar izan genuen. 150 partaide bildu ginen Ollaurin, eta hainbeste jende egonda, pozik nago egindako denborarekin [ordubete, 30 minutu eta 50 segundo]. Banekien ia ezinezkoa izango zela aurreko bie irabaztea. Ezequiel Lázaro (Extremadura) eta Javier Solanas (Aragoi) Espainiako selekzioan ari dira eta, beraz, ontzat ematen dut hirugarren postua.

**Zergatik nahiago dituzu mendiko duatloiak?**



Jiménezek lehenbiziko denboraldia egin du Arrasaten. XABI URZELAI

**“Mendiko duatloietan besteetan baino hobeto moldatzen naiz eta pozik nago Espainiako txapelketan lortutako hirugarren postuarekin”**

**“Igeri egiten desastre hutsa naiz eta oraingoz behintzat triatloiak ez nau erakartzen. Nire asmoa duatloiarekin jarraitzea da”**

**toiak?**

Gehiago gozatzen dut bizikletako proban, mendiko bizikletarekin. Ollaurikoa, hala ere, nahiko zirkuitu laua zen, ez zen baterre teknikoa. Normalean mendiko duatloietan emaitza hobekoak lortzen ditut.

**Joan zen astebukeraren ere bikain aritu zintzen Billabonako proban.**

Bai. Zuhaitz Ezpeleta

taldekideak irabazi zuen eta ni bigarren sailkatu nintzen. Maiatzean eta ekainean ez nintzen hainbeste entrenatu, ikasketengatik, baina uztailetik hona topera ibili naiz entrenatzen eta uste baino hobeto iritsi naiz denboraldi bukaerara. Hala ere, denboraldia bukatzeko desiatzen nago, denboraldia oso luze egiten baita.

Oraingo domekan, Calatayuden, Espainiako Kopako proba bat jokatu da, baina ez dut uste parte hartuko dudunik.

**Duatloi probetan emaitza onak lortu arren, oraindik ez zara triatloiarekin ausartu...**

Igeri egiten desastre hutsa naiz. Korrika eta bizikletan ondo nabil, baina uretan... Oraingoz behintzat, triatloiak ez nau erakartzen. Biak ere oso proba gogorak dira, asko sufritzekoak. Arrasate Triatloi Taldera etorri nintzanean, argi neukan duatloi probetan bakarrik parte hartuko nuela. Nire asmoa duatloiarekin jarraitzea da. Datorren denboraldian ere junior mailan lehiatzeko aukera daukat, eta aurten lortutakoa hobetzea izango da helburu nagusia.

**Denboraldi oso luzea daramazue, ez?**

Bai. Otsaila aldera hasi ginen lehiatzen eta oraindik ere hor ari gara bueltaka. Atsedena hartzeko ordua bada.

**Nolatan gasteiztar bat Arrasate Triatloi Taldean?**

Arrasaten ari naiz ikasten, ingeniari, eta aurten Euskadiko Duatloi Zirkuitua egiteko gogoia neukan, Arrasatekoekin lehiatzea erabaki nuen. Oso gustura ari naiz, eta datorren urtean ere beraiekin jarraituko dut. Deba-goienean zaletasun handia dago duatloi eta triatloi probetarako, eta baliteke ibar mailako talde bat sortzea datorren denboraldirako. Hori aztertzen dihardugu ibarreko beste taldeekin batera.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Santi Idigoras Futbolaria



Idigorasek, 1980-81 liga eskuratu zuen Realarekin.

**Realarekin liga irabazi zuen Gijonen, 1981ean.**


**Mexikoko Puebla taldean aritu zen bi urtez.**

**Euskadi eta Espainiarekin jokatu zuen.**

**H**amasei urterekin Aloña Mendi taldean hasi eta ibilbide luzea egin zuen Santi Idigoras futbolekin. Realak fitxatu eta denboraldi baterako UDA taldera joan behar izan zuen. Atxabaltarrekin Espainiako Afizionatuen Txapelketa irabazi zuen, finalean Murziako Imperial taldeari gailenduz. Jarraian bi urte eman zituen Sansen, hirugarren mailan: “Expositok konfiantza osoa izan zuen nigan, eta Andoni Elizondo zenaren eskutik debutatu nuen Realarekin, 1974-75 denboraldian. 1-0 galdu genuen Vigon, Celtaren aurka”. Realaren garairik onena bizitzea tokatu zitzaion: “lehenbiziko liga irabazi zuen talde hartan begiak itxita jokatzen genuen. Benetako talde bat ginen”. Esan bezala, txuriurdinekin liga irabazi zuen, 1981 urtean, realzaleek gogoan izango duten Gijoneko partiduan, azken minutuan Zamorak sartutako golari esker. Denboraldi hura bukatu eta Mexikon jokatzeke eskaintza egin zioten: “Puebla taldeak oso eskaintza ona egin zidan eta baneukan beste herrialde bat ezagutu eta esperientzia berriak izateko gogoia”. Bi urtez Pueblan jokatzeko gain, mexikar batekin ezkondu zen Santi (Jagoba bere semea hantxe bizi da). Handik bueltan, Valentzian aritu zen, baina taldea nahiko larri ibili zen sasoi hartan. Azkenik, Alavesekin fitxatu zuen eta lehen mailara igotzeko zorian izan ziren, Mane entrenatzailearekin, hain justu.

Jokalari azkarra eta indartsua, gol ugari egin zituen egondako talde guztietan. Euskadi eta Espainiako selekzioekin ere jokatu zuen. Gaur aerobic irakaslea da Donostian, eta astero etortzen da Oñatira, ama bisitatzerara. / E. M.

**“Realean, lehenbiziko liga irabazi zuen talde hartan, begiak itxita jokatzen genuen. Benetako talde bat ginen”**



Santi Idigoras • Oñati • 1953



## Irizarrek bere lagunaren omenaldia jaso zuen

Markel Irizar txirrindulariak bere lagunaren omenaldia jaso zuen joan zen zapatuan Oñatin. Guztira, 90 lagun inguru bildu ziren Etxeberria jatetxean egindako bazkarian. Lagun eta senideez gain, hantxe izan ziren, besteak beste, Jon Odriozola, Mikel Astarloza, Joseba Zubeldia eta Jon Oregi txirrindulariak eta Olarra-Ercoreca taldeko ordezkariak. Markelek eskerrak eman zizkien guztiei jasotako omenaldiagatik. Umore ona izan zen nagusi zapatuko ekitaldian.





**NISSAN**

**PRIMERA.  
PROBA EZAZU. INFORMA ZAITEZ.  
ETA ONDOREN, ZU ZEU.**

**NISSAN PRIMERA. ORAIN,  
400.000 PEZETARAINOKO  
BEHERAPENAREKIN**

Ni ez naiz automobiletan aditua.  
Segurtasuna, bizi-kalitatea eta, gezurra  
dirudien arren, onena prezio hobereanean  
lortzen saiatzen den pertsona naiz.  
Eta, hara, PRIMERA segurua da,  
erosoa eta erantzun ezin hobea du.  
Benetan diotsut, Nissan Primera automobil  
ederra da eta, nire ustez, beste inork ez dit  
horren pare eskaintzen.

**ERAMAN EZAZU ORAIN  
ETA EZ EZAZU ORDAINDU 2002A ARTE.**

**5 URTEKO  
BERMEA  
KM MUGA BARIK**

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate



# Goienka2a


Egubakoitza / 2001ko azaroaren 9a

Kultura  
eta  
aisialdia



Azaroaren  
9tik 16ra

## RUPER ORDORIKAREN LAN BERRIA



### Beste disko profesional bat

**B**este bat, hamabigarrena delako, eta beste bat, Rupertorioko gainerakoak bezain ona edo hobea da-eta. Badira bi Ruper, bata *Ez da posible* aurrekoa; bestea, ostekoa. Duda barik, disko hau *So'ik so'izan* zenarekin hasitako bidari jarraiki eginga da. Gitarrek orduan hartu zuten indarra, eta horien bitartez lortzen ziren atmosfera ezberdinak orain ere nabari dira, batzuetan ilun, behe-lainoa osatzen, gris, eta, era berean, fresko. Ez dago alferrik disko honetan Ben Monder (Marc Johnson, Paul Motian, Lee Konitz...) jauna. Ez du talde makala batu inguruan, Fernando Saundersesk (Lou Reed, Marianne Faithfull...) astindu du gitarra apala eta baterian Kenny Wollesenek (John Zorn, Marc Ribot, Bill Frissel...) jardun du. Orain, zuzeneko taldea osatu eta diskoa defendatzea tokatzen da, baina nork jarriko du zalantzan zuzenekoetako indarra?

Sekula baino "kantaautoreago" da Ruper *Hurrengo goizean*. Disko osoaren idazle izan da, horrek dakarren arriskua hartuta. Bai hitzak hala idatziak izan direlako eta bai melodiek halaxe aginduta lauzpabost single alai daudelako hamai-karen artean. Badira, hala ere, tempo erdiko pieza patxadatsu, lasai eta landuak ere. Zer dakarkigu Ruperrek? Bada, Ruper Ordorika, zaleak zaleago bihurtzeko eta atentzioa eta intentzioa jarriz gero zaletzeko. //BAN ARANTZABAL



## MUSIKA/RUPER ORDORIKAK LAN BERRIA PLAZARATU DU

## RUPER ORDORIKA

*“Moden gaineretik, nire hariari jarraitzen diot; eta horrek lan handia ematen du”*

Izenburu baikor eta iradokitzailea duen bederatzigarren diskoaren aurkezpen ekintzetan buru-belarri sartuta harrapatu dugu Ruper Ordorika abeslaria (Oñati, 1956). *Hurrengo Goizean* iraupen luzeko diskoarekin, neurri baten, lehengo bideari jarraitzen dio Ruperrek; baina hainbat berritasun ere badakartza.

**Sarri jo izan duzu beste idazle batzuegana abestiak idazteko. Hurrengo Goizean diskoa, ordea, zeuk idatzi duzu osorik. Norabide aldaketa baten seinale?**

Ez dakit horrek ezer berezirik esan gura duen. Lehenengo diskoa Bernardo Atxagaren testuen gainean grabatu nuen; bigarrenean, ia guztiak nireak ziren, baina egia da, bai, beste idazleen testuak hartu izan ditudala. Horretarako identifikazioa behar da; irakurlea naiz eta testuak aukeratzen saiatzen naiz. Batzuetan testuak etorri egiten zaizkit: zer edo zer irakurri eta “hau abestu egin behar dut” esaten diot neure buruari. Beste batzuetan pentsatzen dut hori babes antzekoa dela: letra hain ona baldin bada, abestia ere ona izan beharko... Arriskua handiagoa da nork bere letrak idazterakoan.

**Orain, zelan definituko zenuke zure burua: kantautore, musikari, musika idazle, kultura munduko sortzaile...?**

Kantautorea naiz. Berba zakarra da, zakarra benetan, baina horixe naiz ni, kantuak ematen dituen pertsona. Hori bai, inor ez da bide bakarrekoa. Zaila da norberaren burua definitzea.

**Zein gai aukeratu dituzu disko berrirako?**


Ez daukat gairik, oso gutxitan egiten ditut kantuak gai baten inguruan. Kasu honetan neure iturritxo ireki dut, eta urari bere bidea egiten utzi diot. Badaude, bai, gai nabarmenak: single moduan ater den abestia, *Bihotz Begiekin*, gai konkretu baten gainekoa da: ni kanpoan bizi izan naiz, eta orain, Oñatira, sorlekura, itzulita, ingurunea zelan aldatu den konturatu naiz. Gure ibar hau hiri handi bilakatzen ari da.

**Disko osoan zure inguruko gauzez berba egin duzu?**

Inguru fisikoak ematen du gairik, bai; baina norberaren barruan leku fisikoak bezainbateko eragina duten beste para-je eta egoera batzuk izaten dira.

**Hainbat adituk euskal saudade moduan definitu du zure estiloa. Lan berriari etiketa hori ipiniko zenioke?**

Definizio horren atzean badago beste esanahi bat, alegia, malenkonia. Egin berri dudana diskoa nahiko alaia dela esango nuke, nahiz eta malenkonia printzak ere badituen. Izan ere, sentimendu horiek guztiok zelanbait motibatzen gaituztela uste dut. Dena dela, batzuetan zentzu literala aurkitzea gustatzen zaigu irakurtzen edo entzuten ditugun testuetan,



“Kantautorea naiz, kantuak ematen dituen pertsona. Hori bai, zaila da norberaren burua definitzea”, dio Ordorikak.

*“Disko berria nahiko alaia da, nahiz eta malenkonia printzak badituen”*

eta nik uste dut berba soilak badaukala bere misterioa. Ahotsa bera misterioa da.

**Disko alaia dela esan duzu... Izenburua ere baikortasun horri begira ulertu behar dugu?**

Horren zergatia da nik, askotan, tituluak diskoa egin aurretik pentsatzen ditudala; baina kasu honetan ez zen horrela

*“Disko berrian, nire barne iturria zabaldu eta urari bere bidea egiten utzi diot”*

gertatu. Musika kritika baten irakurri nuen disko jakin hark ‘hurrengo goizean’ egin-dako musika zirudiela, hau da, ez festa momentuan, baizik eta horren ondoren. Orduan bururatu zitzaidan badagoela musikan gustuko dudana ezaugarri bat: geldotasuna, lasaitasuna, tempo berezi hori; baita benetakotasuna ere bai, eta goizak horiek

*“Hizkuntzarengatik konplexuz beteta bizi gara, hainbat muga gainditu ezin ditugun ustean”*

guztiak adierazten dituela. Horixe eman gura nuen aditzera. Gainera, aurreko diskoa ‘gaur’ eginda bazegoen, hau ‘hurrengo goizean’...

**Zu hasi zinenean, rock anglosaxoia boladan zegoenean, euskal kantutegiari begiratu zenion. Zure kontura joatea duzu gustuko, boladei kasu egin barik?**

Ni oso musikazalea naiz, hori alde batetik; baina bestetik, neure hariari tiraka ibiltzen saiatzen naiz, zer entzuten denaren gaineko burutazio taktiko larregi barik, hori erotzekoa litzateke-eta. Banabil urteotan kantari, eta modak pasatzen ikusi ditut. Nik benetan sentitzen ditudan gauzak egiten saiatzen naiz, eta hori ahalik eta gusturen egiten. Horrek ez du esan gura iraultzailea naizenik... berba hori handiegia da... nire eginkizunean murgiltzen eta lana zaintzen saiatzen naiz, beste barik. Musika asko eta desberdina entzuten dut, baina nire egiteko orduan ez ditut horiek kontuan hartzen.

**Zail egiten zaizu zure hari horri leial izatea?**

Lan handia ematen du, bai. Baina musika nire pasioa da, eta oinarrizko gauza bat, gainera; betidanik izan dira kantariak eta kantu egileak, eta jardun horrek ez du inongo teorizaziorik. Disko bakoitza aurrerapauso bat da, eta ematen dudana pauso bakoitze hurrengo antzematen da. Horretan datza guztia.

**Alde batetik, oso kosmopolita izan zara, asko bidaiatu izan duzu eta leku askotako musikariek lan egin duzu. Baina euskal musikaren erroak ere arakatu dituzu. Korrante betegarriak dira zuretako?**

Bai. Ni horrelakoa naiz; ez dut ahal-egin berezirik egin behar zaletasun horiek uztartzeko.

**Musikari moduan, hainbat estilo landu izan dituzu. Entzule moduan, zerk erakartzen zaitu? Eta ekoizle moduan?**

Bietan, denetarik. Esan beharra dago joan den aspaldian ez naizela ibili ekoizle lanetan; hainbat ekoizpen egin ditut, bai -Hertzainak, Maurizia Leon eta Basilo, eta Emilio Caoren diskoak, besteak beste. Halako baten, zer edo zer egin eta disko bat ekoizten inplikatu behar nintzela konturatu nintzen. Bestalde, estudioetan ibiliz gero, ikasi egiten da, eta asko, gainera. Ni eta beste batzuk hasi aurretik, oso gutxi animatu ziren, eta guk hartu genuen inizatiba hori. Niretako zaletasuna da, eta arlo horretan ere denetarikoko estiloak gustatzen zaizkit.

**Aurreko diskoa zuzenean grabatutakoa zen. Musikari moduan, zuzenekoak garrantzitsuak izango dira... Zein antzoki mota duzu gurago, Bilboko Kafe Antzokia moduko bat ala eserita egoteko antzoki txiki bat?**

Kafe Antzokiaren estiloko bat. Malgutasun handiagoa du, jendea leku batetik bestera ibil daiteke, bere edaria hartu, mugitu... Jakina, eserita egon eta musika entzuteak ere baditu abantailak. Euskal Herrian asko aurreratu dugu antzokien kontu horretan: musika emanaldietarako azpiegitura hobek ditugu orain. Onena da leku desberdinetan jotzea, alegia, ez beti leku berberetan edo antzekoetan.

**Zuzeneko emanaldietan abestiak asko aldatzen dira diskoko bertsiokien alderatuz gero?**



Kantua beti aldatzen da, bai. Batzuetan bestetan baino gehiago. Musikak bere momentua du, eta hori abantaila da beste arte batzuen ondoan; adibidez, margo bat bukatuta dago, geldu, ikuslearen zain; musika, ordea, aldatuz joaten da beti, nahiz eta zuk berdin-berdin jo.

**Publikoak zeresan handia izango du horretan, ezta?**

Bai horixe. Eztabaida hori ez da atzo goizekoa... Grekoen garaian ere eztabaidatzen zuten publikoaren paper hori arte mota guztietan. Nik gogoan daukat Beatles taldearen *Let It Be* filmeko pasarte bat: hor, taldeko kide batek esaten zuen musika egon dadin gutxienez bi lagun izan behar direla, batak musika egin eta besteak zirkuitu hori itxi dezan, eta nik neuk ere horixe uste dut. Nahiz eta publiko edo hartzaile hori zure irudimenean baino ez egon, nigan, behintzat, beti dago borondate edo gogo hori, alegia, musika bateren bati ematea, mezu hori bidaltzea. Zentzu horretan, kantua terapeutikoa da, norberaren barrutik irteten den zerbaite.

**Londresen, New Yorken eta beste hainbat tokitan egonaldiak egin ondoren disko batzuk egin dituzu. Artistak irten beharra du inspirazioa lortzeko?**

Kontua da norbera eta mundua hobeto ulertzea; horretarako, batzuek irten beharra dute; beste batzuek, ez. Nik behar hori sentitu izan dut beti. Nire burua kanpotik ikustea ezinbesteko zait. Aspaldi ulertu nuen jendeak artistarengandik gura duena dela jakitea zer egiten duen besteengandik desberdin. Adibidez, New Yorken bizi nintzenean ohartu nintzen hangoendako euskara oso interesgarria zela. Gu konplexuz beteta bizi gara hizkuntzarengatik, uste dugulako hainbat muga ezin ditugula gainditu.

LEIRE KORTABARRIA

## Opakotasunean bizi

**E**uskaraz abesteak komertziala ez den musikaren zakuan sartzen duela esan izan du Ruper Ordorikak, baina berak ez du inoiz apustu hori atzera bota.

**Euskarazko musika gutxiengo baten-dako dela esan izan duzu...**

Bai, eta gauzak gutxi aldatu dira. Maiz pentsatzen dut askotan ahaztu egiten zaigula Euskal Herrian egiten dena aztertzea, eta kanpokoari begira bizi garela. Euskaraz egiten denak atzera egin du nabarmen, batez ere euskal hiriburuetan. Euskaraz egiten dena ez eza-gutzearen opakotasunean bizi gara.

**Oso ezkor ikusten zaitut.**

Izan ere, atzerapausoa izan da ni musikari hasi nintzenetik hona. Komunikabideetan oso leku txikia dago euskal sormenerako. Bestalde, erdal publikoak ez ditu euskarazko produktu horiek

*“Euskal Herrian egiten denari baino, kanpokoari begira bizi garela uste dut”*

ezagutzen. Nik horretatik ondoko konklusioa ateratzen dut: jende askok gustura eta erraz entzungo litzuke euskarazko abestiak, baina euskaraz direnez gero, ez dute interesik sentitzen. Hori aldatzea oso-oso zaila da.

**Eta publiko euskaldunak?**

Askotan guk ere gurago izaten dugu ingelesez abestutako musika entzutea euskarazkoa baino, hor barruan dene-tariko estiloak aurki daitezkeen arren.

## ‘Hiru truku III’-rik bai?

**R**uperrek Bixente Martínez eta Joseba Tapia musikariek batera abiarazitako egitasmoa izan zen Hiru Truku. 1994ko hasieran sortu zen hirukote hori. Hiru musikariek betidanik erakutsi dute euskal kantu zaharrekiko interesa, eta horiek aintzat hartuta, bi disko grabatu zituzten: *Hiru Truku I* eta *Hiru Truku II*. *Hiru Truku III*-rik izango ote da? “Oraingo, ez”, dio Ordorikak. “Bixentek Igelaren Bandarekin disko bat egin berri du; Tapiak, Durangon aterako den beste bat... bakoitza gure aldetik gabiltza. Hemendik kanpo egin ditugu saioak, hirurok libre gaudenean; eta gauza ederra izango litzateke berriro elkartzea. Baina Hiru Truku eginkizun baterako jaio zen, eta hori bete zuela deritzot. Hala ere, ni beti nabil euskal kantu tradizionalak miatzen... Hiru Truku berriro elkartzekotan, epe luzera izango da”, dio kantautore oñatiarrak. /L.K.



JABOGA MANTEROLA

Abuztuaren 15a eta 18a bitartean grabatu zituen oñatiarrak *Hurrengo Goizean* diskoko hamaika abestiak.

## Diskoak, banan-banan




**‘Hautsi da anphora’**

1980 / Xoxoa-Elkar  
“Esperientzia handia izan zen. Orduan hasi nintzen hainbat musikarirekin lanean. Testu guztiak Atxagarenak ziren, sasoi hartan ezezaguna zena. Zenbait jende asko maitatu zuen diskoa, eta beste zenbaitek, ezer ere ez”.



**‘Ni ez naiz Noruegako errege’**

1983 / Elkar  
“Disko honekin, talde batekin lanean hasi nintzen. Kantuak ere beste modu batera osatu nituen; aurreko diskoan poema kantatuak baziren, oraingoan kantu egitura zuten, nahiz eta bazegoen poema kantaturik ere. Taldeko disko bat, bai”.



**‘Bihotzerreak’**

1985 / Elkar  
“Nire diskorik teknikoena da. Oso musikala da, formaz oso arduratuta. Hemen baino gehiago, kanpoan izan zuen arrakasta. Gurean rock erradikalaren sasoa zen, eta garairako oso disko desberdina izan zen”.



**‘Ez da posible’**

1990 / Gasa-Wea  
“Tarte handi samar baten ondoren etorri zen disko hau. Beharbada diskorik ‘rockeroena’ da, taldearekin bat egindakoa. Entzule gehien batu zuen diskoa izan zen. Beste ate batzuk zabaldu zizkidan”.




**‘Bilduma bat’**

1992 / Elkar  
“Elkar argitaletxeak prestatu zuen diskoa, beste hainbat bilduma egiten zituen moduan. Oso bilduma sendoa da, bai; hainbat doinu eta hainbat abesti esanguratsu batzen ditu. Disko mardula dela deritzot”.



**‘So ‘ik so’**

1995 / Nuevos Medios  
“*Ez da posible*ren aldean, eten handi samarra markatu zuen Madrileko disketxe batean argitaratutako 1995eko lan horrek. Giro bereziko diskoa da. Gainera, orduantxe bertan hasi nintzen nire lagun amerikarekin lankidetzan”.



**‘Dabilen harria’**

1998 / Nuevos Medios  
“*So ‘ik so’*-k zabalduetako iturritik asko edaten du, baina *Dabilen Harria* beste hura baino barneratua goa dela uste dut. Ulertzeko zaila izan daiteke, zentzu baten, baina oso ondo konprenitua izan zen bere momentuan.”



**‘Gaur’**

2000 / Esan Ozenki  
“Zuzeneko diskoa da, lehenengo abesti garrantzitsuenak batzen dituena, gutxi gorabehera. Zuzeneko emanaldiak oso garrantzitsuak dira niretako, eta abestiak eurak ere aldatu egiten dira zuzeneko saioetan. Publikoak horretan zeresana izaten du.”



**‘Hurrengo goizean’**

2001 / Metak  
“Hamaika abesti dira, guztiak oso gertukoak eta ulertterazak, nire ustez. Espontaneo izaten saiatu naiz. Nahiko disko alai dela esango nuke. Grabatzerakoan sentitu nuen pozaren laurden bat, gutxienez, transmititu gurako nioke entzuleari.”



# Azaroak 9-16

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [erredakzioa@goiena.com](mailto:erredakzioa@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Marc Rearen** *Sexo, drogas y rock and roll* antzezlanaren egubakoitzean, azaroak 9, lamai kafetegian.  
► **Juanlu Escuderoren** *¡Rie! soy un calavera* antzezlanaren domekan, azaroak 11, Gaztetxean, 18:30ean.

### ELORRIO

► **Legaleón T Teatroren** *Bancarrot* antzerki lana egubakoitzean, azaroak 9, Arriola antzokian, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Latiriliren** *Tentempié* antzerki lana egubakoitzean, azaroak 16, Jose Arana ikastolan, 22:30ean.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **MCD eta Banda Munizipala** punk taldearen emanaldia egubakoitzean, azaroak 9, Gaztetxean, 21:30ean.

### BERGARA

► **La Polla, Kaotiko eta Disturbio** egubakoitzean, azaroak 9, Jam aretoan, 22:00etan.  
► **LIF eta Klorofila** egubakoitzean, azaroak 9, Gaztetxean, 22:30ean.  
► **Cretin 66, Antonio Fargas, Rock-A-Hulas eta Derrumbes** Bloody Mary jaialdian zapatuan, azaroak 10, Jam aretoan, 22:00etan.  
► **Biolontxelo eta piano** kontzertua, M<sup>a</sup> Eugenia Silguero eta Belen Sierraren eskutik, zapatuan, azaroak 10, Udaletxean, 19:30ean.  
► **Piano kontzertua** Arkaitz Mendozaren eskutik domekan, azaroak 11, Udaletxean, 19:30ean.  
► **HIM eta Oomph** egubakoitzean, azaroak 16, Jam aretoan, 20:30ean.

### ELGETA

► **PAM eta Luchando para Cambiar** taldeen kontzertua egubakoitzean, azaroak 9, Gaztetxean, 22:30.

### ELORRIO

► **Taghawsa** taldeak bereber musika eta dantza eskainiko ditu zapatuan, azaroak 10, Arriola aretoan, 00:00etan.  
► **Stay Blues** taldearen emanaldia eguenean, azaroak 15, Parran, 22:30ean.  
► **Josetxo Goia-Arriben** Ensembleren emanaldia egubakoitzean, azaroak 16, Ateneon, 23:00etan, Arriolako XII. Jazz Blues jaialdian.

## OÑATI

► **Donostiako Orfeoaren** emanaldia Arantzazuko basilikan, zapatuan, azaroak 10, 20:00etan. Sarrerak 500 pezetan salduko dira.

## ERAKUSKETAK

### ARETXABALETA

► **Ezagutu kontserbatzeko, Euskadin dauden ornodunak** Durana kalean, Murruxoren egoitzan, azaroaren 14ra arte.

### ARRASATE

► **Euskal Irudigileak** aretoa Monterron jauregian, abenduaren 2ra arte.

### BERGARA

► **Kirol argazki lehiaketako** lanen erakusketa azaroaren 18ra arte, Kultura Etxean.  
► **Jose Antonio Laskurainen** margo erakusketa La Caixako bulegoan.

### DONOSTIA

► **Yana Curi, Ekuador eta petrolio** argazki erakusketa azaroaren 25era arte, San Telmo museoan.

### EIBAR

► **Daniel Rodriguezen** margoak azaroaren 11ra arte, Portalean.

### ESKORIATZA

► **Perretxiko erakusketa** izango da domekan, azaroak 11, Herriko Plazan, 12:30etik aurrera.

## LEHIAKETAK

### DONOSTIA

► **Komiki ez sexisten lehiaketa**, Donostiako Udaleko emakumearen bulegoak deituta. Sari bakarra emango dute, 150.000 pezetakoa. Lanak aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da. Argibideak 943 48 14 13 telefonoan.

### ONDARROA

► **Augustin Zubikarai nobela laburrentzako saria**. Lanek (DIN A4 formatoan makinaz idatzita) gutxienez 50 orrialde eta gehienez 100 orrialdeko luzera izan beharko dute. Sari bakarra emango dute, 4.000 eurokoa. Lanak emateko epea abenduaren 1era arte izango da zabalik. Argibideak Ondarroako Udaleko euskara zerbitzuan, 94 683 36 68 telefono zenbakian.

## IKASTAROKAK

### ARETXABALETA

► **Garapen pertsonala taldea**. Hilean bi aldiz batuko dira, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Argibide gehiagorako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.  
► **Eskulan ikastaroa**. Argibideak eta izena ematea Kultura Etxean, 943 71 10 27 zenbakian.  
► **Yoga hastapen ikastaroa**. Eguaztenetan eta egubakoitzetan 10:00etan, edo martitzenetan eta eguenetan, 20:30ean. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian jaso daitezke.

### ARRASATE

► **Gazte ikastaroak**: euskal dantzak, bio-dantza eta argazkigintza. Izena ematea Gazte Bulegoan, 943 77 00 65.  
► **Antzerki tailerra**: azaroaren 10ean hasiko da. Argibideak: AEDn, 943 77 12 28 telefonoan.  
► **Psikogeriatría ikastaroa**: zahartzaroko demenzia eta alzheimer gaixotasuna. Azaroaren 12, 13, 14, 15 eta 16, 15:15etik 18:15era. Izena

ematea ICTE delakoan, 943 77 16 99 edo 943 77 17 15 zenbakietan.

### BERGARA

► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** ekaina bitartean Zabalotegin. Argibideak: 943 76 19 17 edo 606 68 41 94.  
► **Fandango eta arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Gazteendako eta helduendako eskolak. 943 76 15 40.  
► **Pintura ikastaroa** Beart elkarrekin antolatuta. Irakaslea Ricardo Azkargorta izango da. Argibideetako, deitu 656 72 44 49 telefonora.  
► **Heziketarako psikomotrizitate praktikan bi urteko ikastaroa** eskaintzen du UNEDek, 2002ko urtarrietik aurrera. Argibideak gura izanez gero, deitu 943 76 90 33 telefonora.

### ESKORIATZA

► **Amuska taldeak** eta herriko Udalak antolatutako ikastaroak: bolillo, larrua eta pintura oihail gainean, eskulanak eta pintura. 30 orduko ikastaroak. Argibide gehiagorako, deitu 943 71 46 88ra.

## DEBAGOIENA

► **Begirale ikastaroa** Txatxilipurdi, Axtroki, Loramendi eta Laixan elkarrekin antolatuta. 18 urtetik gorakoei dago zuzendua. 943 79 54 46.

## GASTEIZ

► **Psikomotrizitate praktikako V. jardunaldiak** azaroaren 9tik 11ra Gasteizen. Izena ematea azaroaren 3ra arte zabalik. Argibideak, 943 76 90 33 telefono zenbakian.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Bioenergetikaren gaineko hitzaldia** eguenean, azaroak 15, Udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Koitoaren ondoren haurdunaldia ekiditeko** metodoen inguruko hitzaldia, sexologiaren ikuspuntutik. Agurtzane Ormaza sexologoa izango da hizlaria. Eguenean, azaroak 15, udaletxean, 16:30ean.  
► **Arizmendiarieta bere kolabora-**



► MUSIKA

## LA POLLAK DISKO BERRIA AURKEZTUKO DU JAM ARETOAN

*Toda la Puta Vida Igual* diskoarekin sekulako arrakasta izan ondoren, bueltan dugu La Polla taldea disko berriarekin. Bocas du izenburua, eta abendutik aurrera izango da salgai; baina bertako doinuak eta esanak entzuteko aukera izango da Bergarako Jam aretoan, azaroaren 9an. "Ahoak" du izena lan berri horrek, eta apropos dator kio izena; izan ere, Aguraingoek gaur egun pil-pilean dauden hainbat gairi buruz berba egiten dute diskoan. *Fucking USA* izeneko abestian, adibidez, Estatu Batuen politikari zer deritzoten garbi esaten dute, eta gogorarazten digute irailaren 11 baino lehenago idatzi zutela abestia... Gainera, drogak, inmigrazioa edo genetika ere berbaigai dituzte La Pollako mutilek.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Egubakoitzean, azaroak 9. **Ordua:** 22:00. **Prezioa:** 1.600 txarteldegian.

**GoiHata**

翻訳・通訳

Traducciones  
Translations

Übersetzungen  
Traduction

Badakitzu zer jarten dauen hor? Hortarako gaz.  
Itzulpenak hizkuntza guztietan.

Araba Etorbidea 3-2. Eskatu Eraikina  
943 79 25 75 • Faxa: 943 71 21 25  
E-maila: [info@goihata.com](mailto:info@goihata.com) • <http://www.goihata.com>

20500 ARRASATE  
(Gipuzkoa)





**tzaileen ikuspuntutik** izeneko hitzaldia eskainiko da eguenean, azaroak 15, eskola politeknikoan, 19:30ean, *On Jose Maria Arizmendi-rieta, 25 urte geroago* egitasmoaren barnean.

► **Bidezko Merkataritzako produktu dastaketa** zapatuan, azaroak 10, Arruena parkean.

## BERGARA

► **Ibarreko erretratu zaharrak** hasi da biltzen Jardun elkarte, datorren urteko egutegia prestatzeko. Laguntzeko interesa duzuenok, pasa Kartzela Zaharreko bulegotik.

► **Obserbazio irteerak** antolatu ditu Pol-Pol Mendi Taldeak. Azaroaren 10ean, Santoñara. 943 76 48 51.

## DEBAGOIENA

► **Biztanleen eta etxebizitzentzua** berizten ari direnez, debagoiendar guztiak posta zertifikatuz bidalitako gutunak jasoko dituzte datozen egunotan.

## ELGETA

► **Iruki taldeak umeendako ipuin saioa** eskainiko du egubakoitzean, azaroak 16, herriko liburutegian, 18:30ean.

## OÑATI

► **Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen aita-amei zuzendutako hitzaldia** Txantxiku Ikastolan. *Arauk eta mugak familia giroan* izango da gaia. Martitzenean, azaroak 13.

► **Ultreya: esperientzia bat** Santiago Bidean diorama saioa martitzenean, azaroak 13, Kultur Etxean, 19:00etan.

► **Gabonetako tailerrak ingelesez** antolatu ditu CIM hizkuntza akademiak 8tik 12 urtera bitarteko umeendako. Izenematea azaroaren 16an bukatuko da. Argibideak, 943 71 60 00 telefonotan.

► **Aloña Mendi Elkarteko Mendi Sailak** ezohiko biltzarra izango du eguaztenean, azaroak 14, Kultur Etxean, 19:00etan.

# JAIK

## ARAMAIO

► **San Martinak** zapatuan eta domekan. Zapatuan, Aramaioko Joko eta Jolasak liburua aurkeztuko da, kultur etxean, 12:30ean; gaueko 22:00, *Historias de Mujeres* antzezlan.

## ELGETA

► **Gaztainerre eguna** ospatuko da egubakoitzean, azaroak 9, herriko plazan, 14:00etatik 21:00etara. Gaztainak erreko dira jende aurrean.

## LEINTZ GATZAGA

► **Sanmilixanak** ospatuko dira domekan, azaroak 11. Besteak beste, langintzen azoka izango da 10:30etik 20:00etara bitartean.

## GAY MUGIMENDUA, ERAKUSKETAN

Azaroaren 13ra bitartean, *Gay Mugimenduaren historia Euskal Herrian. Heziketa da bidea* izenburua duen erakusketa izango da ikusgai Arrasateko Harresi aretoan, Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) antolatuta. Bazterketa, aldarrikapenak eta osasun informazioa izango dira gai nagusiak.

# Zinema

## ARRASATE

### ■ ALAI ZINEMA

**Moulin rouge**  
Egubakoitza: 19:00, 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:00, 22:00.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 22:00.

## BERGARA

### ■ NOVEDADES

**Los Otros**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**The Filth and the Fury**  
Eguena zine-kluba, 20:00 (jatorrizko bertsioa).

## OÑATI

### ■ SANTA ANA

**El pacto de los lobos**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Como perros y gatos**  
Domeka: 17:00.

**Gracias por el chocolate**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.

## EIBAR

### ■ UNZAGA

**The Score (un golpe maestro)**  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

### ■ RIALTO

**La habitación del hijo**  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

## ELGOIBAR

### ■ HERRIKO ANTZOKIA

**Los Otros**  
Egubakoitza: 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 22:15.

## ELORRIO

### ■ ARRIOLA

**Los Otros**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

**Antxeta eta Katua**  
Domeka: 17:00.

## GASTEIZ

### ■ GURIDI

**Scary Movie 2**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.  
Martitzena: 17:00, 22:30.

**Glitter**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**The score (un golpe maestro)**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**La maldición del escorpión de jade**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Jeepers Creepers**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Jason X**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Training Day**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

### ■ MIKELDI ZINEMAK

**Glitter**  
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:30, 20:15, 22:45.

**Punto de mira**  
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.  
Astelehenerik eguenera: 17:30, 20:15, 22:45.

**Jeepers Creepers**  
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:30, 20:15, 22:45.

**The Score (un golpe maestro)**  
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.  
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:15, 22:45.

**Scary Movie 2**  
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45, 01:15.  
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:30, 20:15, 22:45.

**Intacto**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

**Amelie**  
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 01:15.  
Domekatik eguenera: 20:00.

**Mirada de ángel**  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:15, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:15, 22:30.

**Buñuel y la mesa del Rey Salomón**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.  
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

**Moulin Rouge**  
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 01:15.  
Domekatik eguenera: 20:00.

**Clara y Elena**  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:15, 22:45.  
Astelehenerik eguenera: 17:15, 22:30.

Martitzena ikuslearen eguna.

### ■ FLORIDA-GURIDI

**La pianista**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguaztenera: 19:45, 22:30.  
Eguena: 22:30.

**Los límites del silencio**  
Egunero: 17:00.

**Amelie**  
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguaztenera: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.  
Eguena: 12:30, 17:00, 19:45, 22:45.

**Juana la Loca**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 19:45, 22:30.

**Sólo mía**  
Egunero: 17:00.

**Intacto**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Buñuel y la mesa del Rey Salomón**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Dama de Porto Pim**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Amar y morir en Sevilla**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

### ■ STER ZINEMAK

**The Score (un golpe maestro)**  
Egunero: 12:15 (goizekoa), 16:35, 19:00, 21:25, 23:50 (gauekoa).

**Training Day**  
Egunero: 12:15 (goizekoa), 16:00, 18:15, 20:35, 22:50, 01:05 (gauekoa).

**Pecado Original**  
Egunero: 17:45, 20:00, 22:15, 00:30 (gauekoa).

**Scary Movie 2**  
Egunero: 12:35 (goizekoa), 16:15, 18:25, 20:45, 22:55, 01:00 (gauekoa).

**Moulin Rouge**  
Egunero: 12:00 (goizekoa), 16:30, 18:55, 21:20, 23:45 (gauekoa).

**Los Otros**  
Egunero: 12:20 (goizekoa), 16:05, 18:10, 22:30, 00:40 (gauekoa).

**Juana La Loca**  
Egunero: 12:10 (goizekoa), 16:05, 18:20, 21:00, 23:30 (gauekoa).

**Jeepers Creepers**  
Egunero: 12:25 (goizekoa), 16:15, 18:25, 20:25, 22:20, 00:15 (gauekoa).

**Jason X**  
Egunero: 12:40 (goizekoa), 16:20, 18:30, 20:30, 22:35, 00:35 (gauekoa).

**El Bosque Animado**  
Egunero: 12:35 (goizekoa), 16:10, 17:55.

Goizeko emanaldiak zapatuan eta domekan.  
Gauekoak egubakoitzean eta zapatuan.

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## AMELIE

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Jean-Pierre Jeunet.  
**AKTOREAK:** Audrey Taoutou, Mathieu Kassovitz.

Ipuinek garrantzi handia dute pertsonen bizitzan. Nork ez du gozatu eta amestu horiekin? Bada, orain, Jean-Pierre Jeunet-ek, (komikien eta marrazki bizidunen iturrietatik edanez) egin duen ipuin argitsu eta xarmangarriarekin, *Amelie*, hain justu, beriz ere ume izateko aukera ematen digu.

*Amelie* gazteak bizitza osoa etxe-

an gordeta igaro du. Gurasoek mundutik ezkutatu zuten, eta ez zioten behar zuen maitasuna eskaini. Horren ondorioz, *Amelie* auzoko gizaki bakar-tiei eta sentikorrei laguntzen ahaleginduko den pertsona sineskorra eta ames-laria dugu. Eta auzokideekin izango dituen harreman horiek bizitzari buelta emateko balio izango diote. Horrela, jarrera zabalagoa hartuta, sex-shop baten lan egiten duen bere printzearen bila irtengo da.

*Amelie* filmaren erdigunea dugu, oso pertsonaia berezia da, ametsetan aritzen den eta irudimena eta errealtatea nahastu egiten dituen pertsonaia. Eta ezaugarri horiek dira filmean nagusitzen direnak, zuzendariaren estiloak *Amelie* pertsonaiaarekin zerikusi nabarmena du- eta. Filma mosaiko handi bat da: *Amelie* pertsonaiaz gain, bes-



te pertsonaia ugari agertzen dira ("fotomatoneko mamua", "zermakazko gnomo bidaiaria", eta abar), istorio xelebreekin eta digresioz beteta. Digresio horietan detalle txikiak eta poetikoak eta absurdoak diren ateraldiek ere badu-

te lekua. Hori dela eta, filma, lineala izan gabe eta erritmo bereziarekin, saltoka aurrera egiten duen ideia zaparrada batez betetako istorioa da.

Hori da, bereziki, *Amelie*, beti kontatu izan den ipuin bat (neska bakartia, bizi zorigaiztoko, printze urdina eza gutuko duena), baina kasu honetan digresioz eta ateraldi absurdoez beteta dagoena. Digresioa gure pertsonaia nagusiaren aldetik datorkigu, beti ametsetan egiten, baina ezaugarri hau filmaren narratzaileak areagotu egiten du: sarritan filmaren istorio nagusia gelditu edo desbideratu egiten du, xarma berezia emango dioten sentimendu, sentsazio eta ateraldi bitxiak azaltzeko. Horrela, *Amelie*-ren eta filmaren izaerak bat egiten dute.

ANTONIO ZABALA



## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Zubiaurren etxebizitza salgai. Prezioa adosteko. 943 76 33 78.

**Arrasate.** Aldaigainen etxebizitza salgai. Terraza ederra. Ikuspegi zoragarriak. 943 79 62 50.

**Bergara.** Koldo Eleizalden etxe handia saltzen da. 943 76 34 48.

**Arrasate.** Altamiran etxe handia salgai. Duplexa egiteko aukera. 652 70 97 79. Deitu 19:00etatik aurrera.

**Arrasate.** Pablo Urangan 100 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Lau logela, egongela, sukaldaria, trasteleku, bi komun, bi balkoi, ganbara eta garajea (aukeran). Gas naturala, berogailu zentralizatua, igogailua eta berrikuntza ugari. Berehala sartzeko moduan. 943 77 21 45 (gauze).

**Arrasate.** Musakolako Elkano kaleko 30-3.D etxebizitza salgai. Erdi jantzita. 19 milioi pezeta. 943 79 51 97.

**Bergara.** Martokuan etxebizitza salgai. Sukaldea berrituta dago. Gas naturala. 943 76 08 08 edo 629 46 47 22.

**Oñati.** Santamarina plazan etxebizitza salgai. 943 78 09 79.

**Bergara.** Toki Ederren apartamentua eta garajea salgai. Eskriturak datorren urteko ekainean. 943 27 01 61.

**Arrasate.** Uribarri etorbidean etxebizitza salgai. 943 79 39 11.

**Arrasate.** Erdialdean 95 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Hiru gela, bi bainu, igogailua, sotoa. Oso ondo dago. 696 87 68 52. Deitu 20:00etatik 22:00etara.

**Arrasate.** Gorostiza auzoan etxebizitza salgai. 80 m<sup>2</sup>. Ganbara, sotoa eta garajea. Eguzkitsua eta jantzita. 20:00etatik 22:00etara. 656 73 24 64.

**Arrasate.** Elkano kalean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldaria, komuna eta egongela. 943 77 17 88.

**Arrasate.** Musakolan 110m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Eguzkitsua, igogailua, berogailu indibiduala, lau logela, egongela, sukaldaria, bi komun, bi balkoi. Jantzita. 943 79 27 88 edo 626 36 55 56.

**Bergara.** Aranerrekian 89 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. 943 76 07 30.

**Arrasate.** Antso Abarka kalean etxebizitza salgai. 943 79 17 85.

**Arrasate.** Antso Abarka kalean 67 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Bi logela, bi balkoi handi. Eguzkitsua. 943 77 13 44.

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza salgai. Hiru gela, egongela, sukaldaria eta lur sail txikia ditu. 943 79 48 97.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldaria, jangela eta terraza. 9.000.000 pezeta. 943 71 17 81.

**Eskoriatza.** Garajea duen etxebizitza salgai. Hiru gela, egongela, bi komun, sukaldaria. 617 89 57 84. Deitu 20:00etatik 22:00etara.

**Bergara.** Koldo Elizalden etxebizitza salgai. 943 76 34 48.

**Arrasate.** Santa Teresan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldaria, komuna, balkoia, berogailua, sotoa eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. 943 79 84 57 edo 943 79 96 83.

**Bergara.** Zubieta 32an etxebizitza salgai. 943 79 42 65.

**Oñati.** 88 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Garajea du. Prezioa negoziatzaileke. 943 78 05 96 edo 626 43 99 72.

**Arrasate.** San Andresen 74 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Garajea aukeran. 943 77 05 88.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Levante hondartzaren etorbidean apartamentua ematen da errentan. 943 79 92 73.

**Arrasate.** Ikasleendako etxebizitza ematen da errentan. 943 77 09 32.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. 943 79 18 47. Deitu 20:30etik aurrera.

**Donostia.** Intxaurrenondon gela bakarreko apartamentua ematen da errentan. 658 72 11 87.

**Aretxabaleta.** Erdigunean apartamentua ematen da errentan. Garajearekin. 655 74 17 45.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan. Ikasleendako. 615 78 05 03.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke. Jantzi gabea. 620 17 07 37.

**Bergara.** Mutil gazte batek etxebizitza jantzia hartuko luke errentan. 619 47 63 54.

**Bergara.** Gutxienez bi logela dituen etxebizitza hartuko nuke errentan. 670 97 66 85.

### 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Logelak alokatzen dira. Sukaldaria erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Larreako etxeetan garaje itxia salgai. 653 72 54 24. Deitu 21:00etatik 23:00etara.

**Arrasate.** Elkano kalean garaje itxia salgai. 626 36 55 56.

**Bergara.** Aranerrekian garajea salgai. 943 76 56 75.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Boni Laskurain kalean garajea errentan emateko moduan (bigarren solairuan). 943 76 57 04.

**Bergara.** Ibargarai kalean (Torrekua) garajea ematen da errentan. 639 98 50 08.

**Bergara.** Ibargarai kalean garajea ematen da errentan. 943 76 14 35. Deitu 21:00etatik 23:00etara.

### 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEA OSATU  
106. BESTELAKOAK

### 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

### 5. IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK  
502. ESKAERAK  
503. BESTELAKOAK

### 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

### 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

### 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI

### 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
603. KONPONDU  
604. BESTELAKOAK

### 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

### 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

### 10. RELAX

803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen dira: matematika, fisika eta kimika. Batxilergo arteko maila. 943 76 07 52.

### 502. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Enpresaritzako bigarren mailako ikasle batek kontabilitateko klaseak hartuko lituzke. 943 79 82 00.

**Frantsezeko** eskolak hartuko nituzke zapatu goizetan. 606 42 73 36. Gurutze.

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 61 31. Gauze deitu.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Opel Astra** salgai. 1,7 TD. 85 CV.SS-AW (1996). Beltza, bost ate. Egoera onean. 676 97 54 41

**Range Rover** 3.9 L V8SE autoa salgai. 1992koa. 104.000 Km. 606 42 73 36. Gurutze.

**Ford Fiesta** 1.4 autoa salgai. NA-AF. 943 76 23 27. Martin.

**Naus** markako karabana salgai. 4,85 m. Kanpaldi librea egiteko oso aproposa. 943 76 53 28.

**Renault 11** salgai. SS-W. Autoa oso ondo dago. 943 76 39 89.

**Opel Astra D** salgai. Diesela, hiru urte ditu. 943 76 09 95.

**Derbi Senda** 50 cc-ko motoa salgai. Karburadore eta pistoia berriak ditu. 125.000 pezeta. 943 76 25 50. Gaizka.

### 604. BESTELAKOAK

**Renault 11** markako autoa moto baten truke emango nuke. 943 79 15 96. Asier.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Cort** markako baxu aktiboa salgai. Berri-berria eta prezio ona. 943 76 38 25 edo 652 71 39 32.

Senar-emazteendako **logela salgai**. Ohea: 135 cm. Armairua: 2,30 m. Mesanotxa eta komoda. Merkea. 943 76 42 90.

**Ordenagailua** salgai. Pentium II. 266 Mhz, Bus 66 Mhz, Ram 64 Mb, HD 3,2 Gb, CD Samsung 32X, Monitorea 15", teklatura, arratoia, bozgorailuak eta software pakete zabalak. 100.000 pta. 943 71 42 39.

**Bergara.** Ubera auzoan zortzi urteko pinuak dituen lursaila salgai. Errepidearen ondoan dago. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

**PlayStation** salgai. Hiru mando eta 25 joko. 943 77 14 57.

**Kayak bat** salgai. Ondo dago. Osagarri guztiak. 943 79 78 36.

**Atomic** 9.18 Betacarv eskiak salgai. 943 79 79 04. Iban.

**Otsein** markako garbigailu

berria salga. Oso merke. 943 76 46 90.

**PlayStation** salgai joko eta guzti, 20.000 pezeta; Samsung SQ 3000 idazmakina elektronikoa; bi telefono, MoviStar (Philips eta Alcatel One Touch): 3.000 pezeta telefono bakoitzak, zorro eta kargadore eta guzti. 696 71 42 89.

**Mahaiaik.** Gaztela estiloko hamabi mahai saltzen ditut. Eta aukeri batzuk ere bai. 943 79 17 51.

**Jane** markako bikiendako aukia salgai. Egoera eta prezio ona. 943 76 00 99.

**Nintendo 64** saltzen da, bost joko (007, Mario64, Mario cart64, F-1 World Grand Prix, V-Rally), mando bat eta bolante batekin (bolanteak eta pedalek ere baditu eta PlayStation-endako balio du). Esan ditudan elementu guztiak banaka ere saltzen dira. 943 78 30 81.

### 802. EROSI

**Txanponak.** Metal guztietako txanponak eta bankuko billeteak erosten ditut. Deituz gero, bila joango naiz. 945 44 50 44. 20:00etatik aurrera.

**Inprimagailua.** Bigarren eskuko zuri-beltzeko Postscript inprimagailua erosiko nuke. 943 79 53 42. Josu.

### 804. HARTU

**Arrasate.** Sofa bat hartuko nuke. Iker. 626 71 98 16.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Urriaren 17an, moto istripu baten Seiko markako erlojua galdu nuen Udal Biltzearen inguruan (Zigorrola). Sarituko da. 626 43 42 50.

**Uribarri-Aretxabaleta.** Uribarri eta Aretxabaleta artean betaurrekoak eta horien zorrorra galdu nituen. 630 06 76 82.

**Arrasate.** Euskal selekzioaren jertse bat galdu nuen Usaetxe plazan (Neurria: 10). Bilatu baduzu, Udaltzaingora eraman edo 943 79 14 39 telefonora deitu.

**Arrasate.** Altus motxila urdina galdu nuen domekan Zigorrolan. Barruan bi bota pare eta txamarra zeuden. 943 74 24 56.

### 807. BILATU

**Bergara.** Emakumezkoen jaka bat topatu nuen Santa Marina inguruan. 943 76 18 01.

**Bergara.** Arruriagako semaforoaren ondoan txamarra bat topatu nuen domeka iluntzean. 943 76 36 63.

## 9/ HARREMANAK

# CLUB IYOLA

Elgetara bidea  
**BERGARA**  
943 76 11 29

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

# 943 76 92 71

**Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!**

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi lokal ematen dira errentan. 943 79 18 70 edo 696 38 16 49.

**Bergara.** Amilaga industrialdean 130 m<sup>2</sup>ko lokala ematen da errentan. Argindarra dauka. 943 76 72 52.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Lagun talde batek elkarrekin egoteko lekua behar du (lokala, garajea, ganbara,...) 943 79 98 73.

**Arrasate.** Lokal txiki bat hartuko nuke errentan. 699 00 30 28. Igor.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Aretxabaleta, Eskoriatza,... Emakumea gertu edozein lan egiteko. 943 79 94 85.

**Bergara.** Gertu nago edozein lan egiteko. 943 76 36 68. Deitu 15:00etatik 18:00etara.

**Arrasate.** Zaharrak euren etxeetan zaintzeko titulua daukan emakumea lanerako prest. Garbiketak ere egingo nituzke enpresetan edo etxetan. 943 79 94 85.

**Emakumea** gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 943 76 06 92.

**Arratsaldeko** 17:00etatik aurrera lan egiteko neska gertu. 620 51 34 25.

**Oñati.** Banaketak egiteko (janak, lantegietan, piezak,...) eskaintzen dut neure burua. 943 78 28 15 edo 678 22 97 77.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza** emakumea gertu arratsaldeko umek zaintzeko edo orduka etxeko lanak

**BERGARA**

**TABERNA BATEN  
ASTEBUKAERETAN  
LAN EGITEKO  
ZERBITZARIA  
BEHAR DA**

943 76 73 18

**BERGARA**

**JATETXE  
BATEK  
ZERBITZARIA  
BEHAR DU**

DOMEKETAN ITXITA  
943 76 15 59  
943 76 22 83

**ARRASATE**

**NESKA BAT  
BEHAR DA  
TABERNA BATEN  
LAN EGITEKO**

943 79 74 09

**BERGARA**

**LASA JATETXEAN  
SUKALDARIA  
ETA  
GARBITZAILEA  
BEHAR DIRA**

943 76 10 55

**ARRASATE**

**AHIZKE-CIMen  
idazkari lanak  
egiteko pertsona  
bat behar da (lau  
ordu goizez). Ofi-  
matika ezaguerak  
eta batez ere Word  
eta Outlook pro-  
gramak ezagutzea  
eskatzen da. Eus-  
kara maila ona eta  
ingeleza ezagu-  
tzea baloratu da.**

**943 71 20 55**  
(Jabier)

egiteko. 943 71 53 74.

**Emakumea** gertu lantegi edo lantokiretan baten lan egiteko. 655 73 54 85.

**Bergara.** Etxeko lanak egin edo pertsona zaharrak zainduko nituzke. Goizez edo arratsaldean. Esperientziaduna. 699 01 59 42.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 79 97 11, Kontxita.

**Bergara.** Neska euskalduna gertu pertsona zaharrak zaintzeko arratsaldetan. Autoa daukat. 943 76 43 16. Gauze deitu.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 79 87 40.

**Bergara.** Neska gazte euskalduna gertu umeak zaintzeko edo laguntza eskola emateko (matematika, ingeleza,...) 943 76 37 91 edo 652 71 74 49.

**Bergara.** 24 urteko neska gertu umeak edo edadetuak zaintzeko. 943 76 47 42.

**Arrasate.** Esperientziadun neska gertu etxeko eta atariak garbitzeko. 943 79 82 43.

**Neska** gertu edozein lan egiteko. 620 51 34 25.

**Mutil** gaztea gertu edozein lan egiteko. 696 71 42 89.

**Geriatría** laguntzaileak gertu gaixok eta edadetuak zaintzeko, egunez edo gauzez, edozein ordutan. Etxean edo ospitalean. Esperientzia handia. 649 17 18 44.

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Pertsona behar da etxeko lanak egiteko. 699 87 67 02.

**Arrasate.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 943 79 23 02



**AIPAGARRI**

**David Azurtza**

BERGARA

**H**orra *Mari!* ipuin musikala aurkeztu zuten urriaren 28an Tolosan. Umeen koralek abesteko pentsatua dago obra hori, eta umek abestuz ondo pasa dezatela du helburu. David Azurtza Bergarako Orfeoiko zuzendariak konposatu du musika, eta Jose Mari Iturralde idazleak jarri dizkio hitzak.



**Isabele Pinacho**

MONDRAGOE

**J**oan den astelehenean, azaroaren 5ean, 101 urte bete zituen Isabele Pinachok. Erraz esaten da, baina bete ez dira hain erraz betetzen horrenbeste urte. Isabele Valladoliden jaiotakoa da, baina 70 urte dira Mondragoen bizi dela. Urte askoan Industrial Mondragonesan ibili zen lanean.



**Jon Andueza**

MONDRAGOE

**J**on Anduezak zuzendutako *Aita guria* filmak bi sari jaso zituen Pasaiaiko Badia lehiaketan, aurkeztu ziren 120 lanen artean. Batetik, euskal laburmetrai onenaren saria; bestetik, publikoaren sari berezia. Denera 200.000 pezeta jaso zituzten. Film labur hau uztailen grabatu zuten Elgetan, eta irailean estreinatu zuten.

**JAIOTAKOAK**

- Kepa Roldán Mendizabal.** Aretxabaletan, urriaren 17an.
- Malen Olañeta Vicente.** Bergaran, urriaren 21ean.
- Julen Abarrategi Garai.** Arrasaten, urriaren 22an.
- Jokin Murillo Gómez.** Aretxabaletan, urriaren 23an.
- Julen Estrella Naranjo.** Arrasaten, urriaren 24an.
- Mikele Arkarazo Berriozabal.** Elgetan, urriaren 25ean.
- Maidier Urrutia Martínez.** Arrasaten, urriaren 26an.
- Jurgi Andrés Hernández.** Arrasaten, urriaren 26an.
- Maialen Alkorta Iribar.** Elgetan, urriaren 26an.
- Leire Barrena Jausoro.** Oñatin, urriaren 27an.
- Olatz Alberdi Garmendia.** Bergaran, urriaren 28an.
- Maitane Karasatorre Basauri.** Bergaran, urriaren 30ean.
- Garikoitz Urrutia Atxa.** Arrasaten, urriaren 30ean.
- Asier Matas Flores.** Eskoriatzan, azaroaren 1ean.

**HILDAKOAK**

- Victorino García Cjadura.** Bergaran, urriaren 27an. 81 urte.
- Adrian odríguez Ramada.** Arrasaten, urriaren 27an. 84 urte.
- Vicente Iturbe Altuna.** Arrasaten, urriaren 28an. 59 urte.
- Manuel Bra Sánchez.** Oñatin, urriaren 28an. 73 urte.
- Jesus Mari Gaztelu Alberdi.** Bergaran, urriaren 28an. 47 urte.
- Isabel Portalo Merino.** Arrasaten, azaroaren 1ean. 73 urte.
- Iñaki Zurutuza Irasuegi.** Arrasaten, azaroaren 1ean. 27 urte.
- Pilar Lezeta Ugalde.** Antzuolan, azaroaren 2an. 85 urte.
- Rafael Arkauz Zurutuza.** Oñatin, azaroaren 3an. 41 urte.
- Manuel Quintas Bastante.** Aretxabaletan, azaroaren 3an. 68 urte.
- Eulalia Andrinua Basterretxea.** Bergaran, azaroaren 3an. 79 urte.
- Felix Uribarren Azkoaga.** Arrasaten, azaroaren 4an. 75 urte.
- Jose Agustin Elustondo Urreta.** Oñatin, azaroaren 5ean. 74 urte.
- Jabier Otazua Peña.** Bergaran, azaroaren 4an. 74 urte.
- Pilar Ibarrola Arrieta.** Bergaran, azaroaren 6an. 68 urte.
- Avelino Abarrategi Abarrategi.** Bergaran, azaroaren 6an. 73 urte.

**EZKONDUAK**

- Iñaki Odriozola Zubimendi** eta **Ainhoa Beristain Odria.** Bergaran, urriaren 27an.
- Ignacio Rollán Fernández** eta **Maria Felisa Mondragón Azkarraga.** Arrasaten, urriaren 27an.
- Iñaki Irazola Gaztañaga** eta **Ascensión Mungia Etxabe.** Arrasaten, urriaren 27an.
- Eugenio Carmona Sánchez** eta **Maria Pilar Casquete Fernández.** Arrasaten, urriaren 27an.
- Manuel Reyes González** eta **Ana Maria Prieto Sánchez.** Bergaran, azaroaren 3an.
- Jose Enrique Acuña González** eta **Olatz Aristi Aizpurua.** Bergaran, azaroaren 3an.

**URTEURRENA**

**Jose Mari Berezibar Markaide**

Lehen urteurreneko meza astelehenean, azaroak 12, 19:00etan, **Arrasateko Arima Zuriko** kaperan (San Andres auzoa).



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Marcelina Larrañaga Telleria**

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroak 11, 11:30ean, **Bergarako Santa Marinaran.**



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKELA**

**Iñaki Zurutuza Jauregi**

**Arrasaten** hil zen azaroaren 1ean 27 urte zituela

Bere errautsak Bela Mendi inguruan zabalduko dira azaroaren 18an, domeka, eguerdian. Irteera Garagartzako plazatik 10:30etan.



**URTEURRENA**

**Florentina Alberdi Makazaga**

Julian Leturiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroak 11, 11:30ean, **Bergarako Santa Marinaran.**



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Yanira Urtzelai Gómez** eta **Luisa** ama, eskoriatzarrak biak. Yanira urriaren 18an jaio zen, eta 2,390 kilo pisatu zuen. **Iban** da aita, eskoriatzarra hura ere.



**Ander Ramos Fernández** eta **Mari Jose** ama, mondragoetarrak biak. Ander urriaren 21ean jaio zen, eta 3 kilo pisatu zuen. **Rafa** da aita, atxabaltarra.



**Maialen Alkorta Iribar** eta **Amaia** ama, elgetarrak biak. Maialen urriaren 26an jaio zen, eta 3,450 kilo pisatu zuen. **Luisan** da aita, elgetarra hura ere.



**Julen Estrella Naranjo** eta **Paki** ama, mondragoetarrak biak. Julen urriaren 24an jaio zen, eta 2,990 kilo pisatu zuen. **Rafa** da aita, mondragoetarra hura ere.




**Zelestina Larrañaga** eta **Juan Aristegi** bergararrak ezkondu zireneko **50. urteurrena** bete berri dute. Joan den urriaren 20an bete zuten urteurrena; 1951ko urriaren 20an ezkondu ziren Bergaran. Joan den hilaren 28an, domekan, ospatu zituen bikote honek **urrezko ezteiak** euren senitartekoekin batera. Argazkian, bikotea, ezkontza egunean. Zorionak, familiakoen partetik!



Datorren zapatuan, **azaroaren 10ean, Idioia Bengoa** bergararra eta **Jose Karlos Ibaibarriaga** ermuarra ezkondu egingo dira! Bergaran ezkonduko da bikotea, Bergarako Udaletxean, hain zuzen ere. Gero, Oñati aldera joango dira ezkontza ospatzera, Soraluze jatetxean izango dute bazkaria. Zorionak, bikote, zuen familiaren eta lagunuen partetik, eta ondo pasa ezazue zapatuan!



## ASTEBURUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 10

Egun lainotsua izango dugu zapatua. Euri txikia egingo du, tarteka ekaitza egin dezake, eta baita txingorra ere. Gainera, 400 metrotik gora elurra egin dezake zapatuan. Tenperaturak behera egingo du. Haizea, berriz, iparraldetik ibiliko da, eta tarteka haize bortitza izango dugu.

**Nafarroako Erribera:**  
Euri txikia.  
**Errioxa:** Euri txikia.  
**Pirinioak:** Elur boladak.

DOMEKA, 11

Estalita izango ditugu zeruak domekan, oso egun lainotsua izango dugu. Euri txikia egingo du egun osoan, eta tarteka gogor egingo du euria. Elurra 1.200 metrotik gora egingo du. Tenperaturak pixka bat gora egingo du. Haizea, berriz, iparraldetik eta ipar ekialdetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:**  
Zaparradak.  
**Errioxa:** Zaparradak.  
**Pirinioak:** Egun eguzkitsua.

### ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

# 10,8° C

### ILARGIAREN ALDIAK: AZAROA



### EGUZKIA: AZAROAREN 11



## URKULUKO URTEGIA

Azkenaldian dezente ari da jaisten Urkuluko urtegiaren ur maila. Kontuan hartu behar da, hala ere, Urkulu dela ur mailarik altuena duen urtegia Gipuzkoan, %69,33 da-eta ur maila.

# %69,3

## ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

### MEZAK

**Astegunetan**  
08:30, 12:00.  
**Zapatuetan**  
08:30, 12:00, 19:30.  
**Domeka eta jaiegunetan**  
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia),  
13:30 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112))  
SOS DEIAK**

Bergara	943 76 24 40
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Hies Ekimena	943 79 26 99

Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Aberre hiltzategia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elkarteak	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Kapirixo	943 71 63 23
Zerga Bulegoa	943 76 58 63

Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
Arrasate / AED	943 77 12 28
Aretxabal. / Loramendi	943 77 09 70
Bergara / Jardun	943 76 08 19
Eskoriatza / Axtroki	943 71 54 34
Oñati / Laixan	943 71 63 11

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia	
Bergara	943 78 04 11

### Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 64 80
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

### Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 79 10 00
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

### UDALTZAINGOAK

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 79 10 52
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

### GARRIAOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33

## ZENBAKISARITUAK

BONOLOTOA				LOTERIA PRIMITIBOA		
EGUAZTEN 7 05 • 13 • 25 35 • 46 • 47 OSAGARRIA: 15 ITZULKETA: 3	MARTITZEN 6 05 • 13 • 18 19 • 44 • 49 OSAGARRIA: 30 ITZULKETA: 8	ASTELEHENA 5 13 • 21 • 22 30 • 32 • 49 OSAGARRIA: 02 ITZULKETA: 6	EGUBAKOITZA 2 06 • 07 • 18 20 • 35 • 38 OSAGARRIA: 01 ITZULKETA: 4	DOMEKA 4 06 • 23 • 41 44 • 46 • 49 OSAGARRIA: 01 ITZULKETA: 6	ZAPATUA 3 19 • 21 • 22 25 • 33 • 49 OSAGARRIA: 41 ITZULKETA: 4	Saritzarra EGUENA 1 03 • 09 • 28 29 • 35 • 42 OSAGARRIA: 12 ITZULKETA: 8
ONCE						
EGUAZTEN 7 44.025	MARTITZEN 6 87.631	ASTELEHENA 5 52.547	DOMEKA 4 96.403 (047 seriea)	Kupoitzarra EGUBAKOITZA 2 34.085 (061 seriea)		

Erakunde hauen laguntzaz

## AUTOBUSORDUTEGIA/PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandekak

DONOSTIA-GASTEIZ														
BERGARA			ARRASATE			ESKOLA P.			ARETXABALETA			ESKORIATZA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:45	07:15	09:15	07:00	07:30	09:30	07:45	—	—	07:05	07:35	09:35	07:10	07:40	09:40
07:15	08:15	11:15	07:30	08:30	11:30	13:20	—	—	07:35	08:35	11:35	08:40	08:40	11:40
08:15	09:15	14:15	08:30	09:30	15:30	—	—	—	08:35	09:35	15:35	09:40	09:40	14:40
09:15	11:15	15:15	09:30	10:30*	14:30	—	—	—	09:35	10:35	14:35	10:40	10:40	15:40
11:15	13:00	17:15	10:30	11:30	16:30	—	—	—	10:35	11:35	16:35	11:40	11:40	16:40
13:00	14:15	18:30	11:30	12:30*	17:30	—	—	—	11:35	12:35	17:35	12:40	12:40	17:40
14:15	15:15	19:15	12:30*	13:15	18:30	—	—	—	12:35*	13:35	18:35	13:40	13:40	18:40
14:25	18:30	21:15	13:15	13:30*	18:45	—	—	—	13:20	14:35	18:50	14:50	14:40	18:55
15:15	19:15	21:45	13:30*	15:30	19:30	—	—	—	13:35*	15:35	19:35	15:40	15:40	19:40
16:00	20:30	—	14:30	14:30	21:30	—	—	—	14:45	16:35	21:35	16:40	16:40	21:40
18:30	21:15*	—	14:40	16:30	22:00	—	—	—	15:35	17:30	—	17:40	17:40	—
19:15	21:45*	—	15:30	17:30*	—	—	—	—	16:35	18:35	—	18:40	18:40	—
20:30	—	—	16:15	18:30	—	—	—	—	17:35*	19:35	—	18:55	18:55	—
21:15*	—	—	16:30	18:45	—	—	—	—	18:35	21:35	—	19:40	19:40	—
21:45	—	—	17:30*	19:30	—	—	—	—	18:50	—	—	21:40	21:40	—
—	—	—	18:30	20:45	—	—	—	—	19:35	—	—	22:10*	—	—
—	—	—	18:45	21:30	—	—	—	—	21:35	—	—	—	—	—
—	—	—	20:45	22:00	—	—	—	—	22:05*	—	—	—	—	—
—	—	—	21:30	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
—	—	—	22:00	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—

(\*) Landantik.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA														
GASTEIZ			ESKORIATZA			ARETXABALETA			ARRASATE			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:30*	06:30**	08:30**	06:20	07:05**	09:05**	06:25	07:10**	09:10**	06:30	07:20*	09:20**	06:45	07:35*	09:35**
07:30	07:30	09:00	07:05**	08:05	09:35	07:10**	08:10	09:40	07:20**	07:20*	09:50	07:35**	07:35*	10:05
08:30*	08:30*	10:30**	08:05	09:05**	11:05**	08:10	09:10**	11:10**	08:20	08:20	11:20**	08:35	08:35	11:35**
09:30**	09:30**	12:30**	09:05**	10:05**	13:05**	09:10**	10:10**	13:10**	09:20**	09:20**	13:20**	09:35**	09:35**	13:35**
10:30**	10:30**	15:30**	10:05**	11:05**	16:05**	10:10**	11:10**	16:10**	10:20**	10:20**	16:20**	10:35	10:35	17:35**
11:30*	11:30*	16:30**	11:05**	12:05**	17:05**	11:10**	12:10**	17:10**	11:20**	11:20**	17:20**	11:35	11:35	18:35**
12:30*	12:30*	17:30**	12:05**	13:05**	18:05**	12:10**	13:10**	18:10**	11:20**	12:20**	18:20**	13:35*	13:35*	20:35**
12:30*	12:30*	18:30**	13:05**	13:05**	19:05**	13:10**	13:10**	19:10**	12:20**	13:20**	19:20**	14:35	14:35	21:35**
13:30*	13:30*	19:30**	14:05**	14:05**	20:05**	14:10**	14:10**	20:10**	13:20**	13:20**	20:20**	15:35	15:35	—
14:30	15:30**	20:30**	15:05**	15:05**	21:05**	15:10	15:10**	21:10**	13:20**	14:20**	21:20**	17:35*	20:35*	—
15:30**	14:30*	—	16:05**	16:05**	—	16:10**	16:10**	—	14:20**	15:20**	—	18:45	18:45	—
16:30*	16:30*	—	17:05**	17:05**	—	17:10**	17:10**	—	15:20	16:20**	—	19:35	19:35	—
17:30**	17:30**	—	18:05**	18:05**	—	18:10**	18:10**	—	16:20**	17:20**	—	20:35*	20:35*	—
18:30	19:30**	—	19:05	19:05	—	19:10	19:10	—	17:20**	18:20**	—	21:35**	21:35**	—
19:30*	20:30**	—	20:05	20:05	—	20:10*	20:10*	—	18:20**	19:20**	—	—	—	—
20:30*	—	—	21:05**	21:05**	—	21:10**	21:10**	—	18:30	20:20**	—	—	—	—
—	—	—	—	—	—	—	—	—	20:20*	—	—	—	—	—
—	—	—	—	—	—	—	—	—	21:20*	—	—	—	—	—

(\*) Landantik.

(\*) Eibarerraino

(\*) Bergararaino

DONOSTIA-BILBO													
DONOSTIA			ANTZUOLA			BERGARA			ELGETA			BERGARA-OÑATI	
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	A
07:00	07:00	08:30	08:30	09:18	10:00	06:35*	09:10	10:10	08:50	09:20	10:20	07:20	07:40
16:30	16:30	19:00	09:40	12:05	17:55	08:40	12:15	18:10	14:00	18:20	18:20	09:35	09:55
—	—	—	12:05	19:35	—	09:50	18:10	18:45	18:20	20:50	—	13:35	13:55
—	—	—	16:40	20:30	—	12:15	19:45	20:40	—	—	—	16:35	16:55
—	—	—	17:15	22:05	—	13:45	20:50	22:15	—	—	—	18:35	18:55
—	—	—	18:00	—	—	16:50	—	—	—	—	—	19:35	19:55
—	—	—	19:35	—	—	17:25	—	—	—	—	—	20:45	21:05
—	—	—	20:40	—	—	18:10	—	—	—	—	—	Z	Z
—	—	—	—	—	—	19:45	—						



# HITZGEZIDUNAK

Luma		Izena		Tik...., erloju-hots		Hegazti mota	
		Leizeak		Aurreko egunean			
Trabak		Bokala		Kontso-nantea		Röntgen	
Suntsiketa		Abereak		Gar		Ukatzeko	
Deitura							
Eguneroko jakia				Kontso-nantea		Boroa	
Ald., mo-lib-denoa		Arrantza gunea		Potasioa		Aintzirak	
Pl., baraz-ki mota		Hondamen		Sodioa		Kasik	
Plangintza				Nauka			
Estalki mota				Modu atzizkia			
Izadia				Aurrizki latinoa			
Mahai joko						Bokala	
				Ikas eta Ari			

# BILABILATZ



# UMOREGIROAN/ Izero Aperribai



## PINGUINUAKIN BILBON ZIHAR

Juan die Bergarako bi lagun Bilbora eta Etxeberria parkian pinguino bat topau dabe. Hartu dabe pinguinua eta badoiaz Bilbon, kalia gora eta kalia behera: Gran Via, Moiu, Zazpi kalia... , poz pozik pinguinuo alboan daukela. Halako baten, alquazillakin topo egin dabe, eta esan dotse honek:

- Ze gittin dozue pinguinua-kin?

- Ba, hementxe, ikusten dozu, pasiatzen.

- Hartuizue eta eroaizue zirkora lehenbaillehen.

Handik bi ordura berriro be egin dabe topo alquazillakin kalia, eta honek:

- Baiña, atzera be hemen pinguinua-kin?

- Bai, eroan dogu zirkora eta gustatu jako, eta oin zinera eroan bihar dogu.

## DISKOTEKAN, SEKULAKUAKIN

Diskoteka baten, ordu txikixetan, bazeguan tipo bat lurrian botata, sekulako atxurrearekin, zutik ipiñi ezinda, behin eta berriro errepikatzen: "Etxera eroaten nabeneri hamar milla duro"; eta berriro: "Etxera eroaten nabeneri hamar milla duro"... Hola denbora guztixan. Apurka-apurka geruago eta jende gehiago hurbiltzen ebillen harengana, eta halako baten esan dotsa batek:

- Eta, non bizi za, ba?

- Akordauko banintza, zera emongo notsuke zuri hamar milla duro!

# EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



## Zein ugariago: Agirre, Larrañaga ala Sánchez?

Telefonikako gida (listiña) hartu eta Debagoieneko herri guztietan Agirre, Larrañaga eta Sánchez lehenengo abizentzat zenbat aldiz agertzen diren kontatuko bagenu, hiru abizen horietatik zein agertuko litzateke sarrien?

- Agirre
- Larrañaga
- Sánchez

(116, Bergaran).

Erantzun zuzena: Sánchez, 227; Agirre, 181; Larrañaga, 180

# SOLUZIOAK



A	K	E	A	X	A	K	E	A	X
•	R	U	A	•	•	R	U	A	•
A	U	A	T	T	A	U	A	T	T
I	•	N	A	P	I	•	N	A	P
•	A	•	K	A	•	A	•	K	A
A	A	L	A	•	A	A	L	A	•
B	•	R	•	A	B	•	R	•	A
A	Z	U	D	A	A	Z	U	D	A
N	E	P	E	N	N	E	P	E	N
R	•	Z	•	A	R	•	Z	•	A
A	K	A	•	N	A	K	A	•	N
K	O	B	A	K	K	O	B	A	K
•	T	•	J	•	•	T	•	J	•

# DENBORA-PASA /21

# ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

## ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Umeekin eta jende gaztearekin harremanetan egonda, konturatuko zara azkenaldian oso sartuta ibili zarela lan kontuetan eta gurari pertsonaletan. Eta dagoeneko galdu duzu dibertitzeko zenuen gaitasuna. Horrela, zure bizitzaren hainbat aspektu berriro aztertu beharko dituzu, eta, ondorioz, hainbat aldaketa egin. Zoriontsu izaten ikasi beharko duzu, eta emaezuz garrantzia gauza txiki.

## TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Dena galtzeko beldur zara. Hori dela eta, zure ingurukoekin menderatzailea eta posesiboa izango zara; horren ondorioz, eztabaidak eta liskarrak izango dituzu haiekin. Bikotekidea dutenek hura ere gal dezakete. Onar ezazu aldatzea ez dela guztia galtzea eta ikas ezazu aurrerantzean zure bizitzan gertatuko diren aldaketak naturaltasunez zureganatzen.

## GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure helburuak lortzeko esfortzu ikaragarria egingo duzu, baina merezi izango du. Bestalde, osasunari kalte egingo dio esfortzu horrek, eta estresaren eta estuasunaren ondorioz arnas hartzeko arazoak izan zenitzake. Astia har ezazu dibertitzeko eta erlaxatzeko.

## CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Lanari dagokionez, aste ezin hobea: lanik ez badaukazu laster topa dezakezu; eta lana badaukazu, zure nagusien oniritzia izango duzu erakundeetatik laguntzak eta dirulaguntzak lortzearen. Hala ere, amodioari dagokionez, gauzak ez dira hain ondo aterako; ez dakizu zer gura duzun, hortaz, ezer egin aurretik ondo pentsatu.

## LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Asperraldiak, eguneroko ohikeriak, abenturarako desioak, amodioan aldaketak... Horiek guztiak ohiz kanpoko egoerak bizi izatera eraman zaitzake, eta behin-behineko poztasuna ekarriko dizute. Baina epe luzera tristura eta nahastea ekarriko dizkizute. Argi ibili, bestela bizitza nahastu egingo dizute erabat.

## VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Ez fidatu jendeak esaten dizunarekin, jarrai iezazite senari eta esperientzietan. Horrela, etorkizunearan arazo ekonomikoak ekidin ditzaitezue. Ez ibili presaka, osterantzean erorkioa izan dezakezu eta baliteke hezurren bat haustea.

## LIBRA

irailak 23-urriak 22

Zuretzako oso garrantzitsua den pertsona batekin dezepzioa izan dezakezu. Horrela ikasiko duzu ez duzula beti egin behar besteek esaten dutena edo gura dutena. Benetako onura ekarriko dizkizuten gauzak egiten hasiko zara. Bidaia bat egingo duzu eta jendea ezagutuko duzu, aberasgarria izango da.

## SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Txiki-txikitik ezagutzen duzun pertsona batekin lan-proposamenak egingo dizkizu, baina argi ibili! Une txarra ari zara pasatzen, eta hori aprobetxatu dezake pertsona horrek zu engainatzeko. Erroñkei aurre egiteko duzun gaitasuna gal dezake, errealitateari uko egiteko desioa duzu-eta. Ardurei aurre egin, izan ere, ihes egiteak ondorio negatiboak ekarriko dizkizu epe luzera.

## SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Zure ingurukoari arreta ipini; buru-belarri dihar- duzu zure proiektuetan, eta ez zara konturatzeko gertuko emakume batek zure laguntza behar duela. Lagunen aholkuak entzun itzazu, bestela optimismoa eta berotasuna lagun hainbat konpromiso har ditzaitezue, eta kalte egin diezaiokete zure osasunari epe luzera.

## CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Betebehar ugari eta lana erruz. Aisialdirako astirik ez. Edozelan ere, ez zaitzete kezkatu horregatik, lortuko dituzun fruituak sari ezin hobeak izango dira-eta. Bestalde, beste sexuarengan erakarpen handia eragingo duzu, eta bikotekiderik ez badaukazu, pertsona bat ezagut dezakezu eta harekin harreman estua sortu. Bikotekidea badaukazu, haustura arriskua izan daiteke, ezagutu berri duzun pertsonak zure bikotekidearekin daukazu harreman egonkorra astin dezake eta.

## AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Lan-egoerak hobera egingo du, eta lanik ez badaukazu, topatuko duzu eta zure gustukoa izango da, gainera. Lana edukitzeak, kontratuan hobekuntzak izango dituzu. Baina aldaketa horiek guztiak izango dituzu jardunaren, irmotasunaren eta nekazintasunaren bitartez. Ez edan alkohol askorik, urduri jar zaitzete eta astegun buruzuri baten egoera deserosoak sor zenitzake.

## PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Erosteko ahalmen urria daukazu; hori dela eta, oraingo lan-baldintzen gainean hausnarketa egingo duzu, aldaketaren bat eragiteko kontu horretan. Era berean, gastu gutxiago egin beharko dituzu, apetak emanda erosketa ugari egiten duzu eta gero larri-larri ailegatzeko zara hil bukaerara. Dirua neurritz gastatzen ikas ezazu.





# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

## TELEBEGI

### Telesexua

**T**elebistan gai askoren inguruan berba egin da betidanik eta horien artean leku berezia izan du sexuak. Baina gai horiek ilargiaren presentziarekin jartzen ziren pil-pilean, hau da, gaueko saioetako izar izaten ziren. Orain, berriz, badirudi telebistan ezin dela solasaldi bat antolatu sexuari buruz hitz egin barik. Orduak ez du axola, mahaiaren inguruan pare bat profesional eta beste hainbeste aditu jarri gero, nahikoa. Hala ere, gauza borobiltzeko onena esperientzia ikaragarriak izan dituen eta dituen norbait bilatzea da. Pertsonaia hauekin audientzia ziurtaturik dago. Eta hori, nola ez, ondo baino hobeto dakite telebista saioetako arduradunek.

Atzo lagun batek hauxe esan zidan: "egun berean hiru programa desberdin ikusi ditut. Goizekoan, orgasmoa gora eta behera ibili dira, arratsaldean zuk lan egiten duzun saioan berriro gai berdinarekin bukatu duzue, eta gauean zapping eginez, bi programa ikusi ditut eta bietan sexua izan dute mintzagai. Baina ez al dago beste gai bat telebistan berba egiteko?"

Nire erantzuna hauxe izan zen: "bai, baina audientziak agintzen duenez eta audientzia handiena horrelako gaiak ematen dutenez, bada, horrela jarraituko dugu iturri hori agortu arte". Ez dakit konbentzitu nuen baina egia esan nion. Gaur egun, aldamenekoaren edo jende ezagunaren trapu zaharrak aireratzea eta sexua dira ikusle gehien erakartzen duten gaiak telebistan. Baina, nola da posible gu ez bagara morbosoa, ez bazaigu intimitatea aireratzea gustatzen eta are gutxiago ondokoarena? Bada, ez dakit, baina datuak hortxe daude.



ITXARO ZUBILLAGA

### 'Goienasport'

Astehenean, 20:30ean

#### Behobia-Donostia

**U**rtero sasoi hauetan gertatzen den moduan, makina bat korrikalari dabilta bideetan; izan ere, ate joka dugu maratoi erdi preziatuenetakoa. Aurten ere, kirolari dezente izango dira Behobia eta Donostia artean. Hori dela eta, astehenean, *Goienasport* saio berezia eskainiko dizuegu. Domekan jokatzeko Behobia-Donostia lasterketara bidaliko ditugu kamerak. Lasterkari debagoiendarrak izango dira gure saioko protagonistak. Iaz ere, gure ibarreko 400 lasterkari inguruk parte hartu zuten lasterketa ospetsu horretan.

### 'Iparrorratza'

Martitzenean, 22:00etan

#### Malawi eta Mozambique

**B**anoa bidaia agentziaren eskutik bidaiatuko dugu aste honetan ere. Protagonista, berriz, Mikel Essery izango da, eta Mozambique iparraldean eta Malawin bizitakoa kontatzen etorriko da. Duda barik, bidaiatzeko beste modu bat erakutsiko digu Mikelek, ohiko gune turistikoetatik ihesi. Afrikako hiru herrialde bisitatuko ditugu: Zimbabwe, Malawi eta Mozambique; geografikoki oso hurbil dauden herrialdeak, baina guztiz ezberdinak. Gogora ezazue Julenek aurkeztu duen *Iparrorratza* saioarekin martitzeno duzuela hitzordua, gaueko hamarretatik aurrera.

### 'Sarrera doan'

Eguaztenean, 20:30ean

#### Musika protagonista

**E**guenean, *Sarrera doan*-ek musikaz gozatzeko aukera eskainiko dizu. Oñatitik zuzenean musikan aspalditik maisu diren bi protagonista izango dira saioan: Ruper Ordorika eta Juan Carlos Irizar. Biek kaleratu berri duten diskoen berri emango dute *Sarrera doan*-en. Horrez gain, betiko moduan, Debagoieneko txoko eta paraje politenak bisita ditzazun, ikusmiran jarraituko dute. Eguenean, Aretxabaleta aldera joango dira *Sarrera Doan*-eko lagunak. Han, Urkuluko urtegiaren inguruan dagoen Arientza auzoa erakutsiko digute.



## Asteko programazioa / Azaroa 9-15

EGUBAKOITZA 9	ZAPATUA 10	DOMEKA 11	ASTELEHENA 12	MARTITZENA 13	EGUAZTENA 14	EGUENA 15
14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Sarrera doan</b> 15:15 <b>Berriak</b> 15:30 <b>Soinuz blai</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Astebete</b> AFAGI erakunde izango da saioko gai nagusia. 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Soinuz blai</b>	14:00 <b>Asteburuko tartea</b>  <b>Gatza eta berakatza</b>  <b>Xeleberri</b>  <b>Iparrorratza</b> Nairobitarrean Argentinarraino bidaiatuko dugu Josu Izutueta eta Banoaren eskutik.  <b>Sarrera doan</b> Jam aretoak bost urte bete berri ditu eta arduradunetako batekin, Mikel Berasategirekin, hizketan izan gara.  <b>Soinuz blai</b>  <b>Astebete</b>	14:00 <b>Asteburuko tartea</b>  <b>Gatza eta berakatza</b>  <b>Xeleberri</b>  <b>Iparrorratza</b> Nairobitarrean Argentinarraino bidaiatuko dugu Josu Izutueta eta Banoaren eskutik.  <b>Sarrera doan</b> Jam aretoak bost urte bete berri ditu eta arduradunetako batekin, Mikel Berasategirekin, hizketan izan gara.  <b>Soinuz blai</b>  <b>Astebete</b>	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Astebete</b> 15:15 <b>Berriak</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Goienasport</b> Asteburuan gure kirol taldeek jokatuako partiduen errepaso zabala. 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b>	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Goienasport</b> 15:15 <b>Berriak</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Xeleberri</b> 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Iparrorratza</b> Malawi eta Mozambique bisitatzeko aukera Mikel Esseryren eskutik.	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Xeleberri</b> 15:15 <b>Berriak</b> 15:30 <b>Iparrorratza</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Ekilan</b> Enpresa hizpide duen saioa, Alberto Gorritibereak aurkeztuta. 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Soinuz blai</b> Ugutx Usandizagak aurkeztutako bideo-klipak.	14:00 <b>Berriak</b> 14:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 14:30 <b>Ekilan</b> 15:15 <b>Berriak</b> 15:30 <b>Soinuz blai</b>  20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Sarrera doan</b> 21:15 <b>Gatza eta berakatza</b> 21:30 <b>Berriak</b> 22:00 <b>Soinuz blai</b> Ugutx Usandizagak aurkeztutako bideo-klipak.

## BARRUKOKONTUAK

### 'SAREAN' SAIKO LEHIAKETA

**A**bian da dagoeneko *Sarean* saioko lehiaketa. Milar Elkorok etxearen eskutik, hilero CD grabagailu bat eskuratzeko aukera izango duzue. Lehiaketan parte hartzeko, helbide elektronikora idatzi: goitbprogramazioa@goiena.com, eta esan iezaguzu zein den zure webgunerik gustukoena. Mezu elektronikoa bidaltzeagatik zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Hurrengo saioan jakinaraziko dugu hileko irabazlea nor izan den. Animatu eta idatzi!

### AURKEZLEAK, DOTORE-DOTORE

**E**gunero kamera aurrean jartzea eta, gainera, itxura ona erakustea ez da gauza erraza. Baina Arrasateko zenbait dendariri esker itxura ezin hobea lortzen dugu. Albistegietako aurkezleak egunero Lasagabaster etxeak janzen ditu, eta Maider egunero joaten da Jade ile apaindegira. Telebistako musikazaleak, berriz, Dotakon jantzi dendak janzen ditu. *Xeleberri* eta *Sarrera doan* Gili Gili dendaren esku daude, eta *Iparrorratza* ko Julen Loramendi kirol dendak janzen du.

## KAMERA AURREAN



**"Lehenago txistuka zituenak txaloka jarri zituen Xalbadorrek, eta horretarako gizonak "arte" behar du"**

Patxi Goikolea / Bertsozalea  
"BERRIAK" (2001-11-07)



**"Oso nekeza da. Baina dagoeneko izen bat lortu dugu eta taldeek JAMera etorri nahi dute"**

Mikel Berasategi/ Jam aretoko arduraduna  
"SARRERA DOAN" (2001-11-08)





Zuk ahal duzu



Atzeskua

MAIDER OSA

**Kaxiano Ibarguren/ Soinujolea**

**A**ntzuolakoa izan arren, Lizartzan bizi zara aspaldidanik.

Bai, mutikotatik bizi naiz Lizartzan.

Lizartzan zentral bat zegoen, eta hara joan zen aita lan egitera. Ondorioz, familia guztia etorri ginen aitarekin batera. Ni justu-justu akordatzan naiz horretaz. Oso gaztea nintzen Antzuolatik hona etorri ginenean.

**Hala ere, Antzuola asko maite duzu, Antzuola ez duzu saltzeko.**

Bai, inolako duda barik, biziki maite dut Antzuola.

**Disko bat ere eskaini zenion.**

Bai, bosgarrena-edo. Antzuolari izenburua jarri nion. Guztira zazpi bat disko kaleratu ditut. Dena dela, berandu merkaturatu nuen lehenengo diskoa, berandu hasi nintzen diskogintzan, 1985ean, hain zuzen ere. Azkena, berriz, duela lau bat urte kaleratu nuen.

**Gaztetan, lan istripu baten ondorioz itsutu zinen.**

Bai, Lizartzan itsutu nintzen, lanean ari ginela.

**Zaila egin zitzaizun behin itsututa akordeoia jotzen ikastea?**

Ez zitzaidan hain zaila egin. 17 urte nituela hasi nintzen ikasten, lehenengo, Lizartzako organista bate-

kin, eta gero, Donostian ere bai. Lizartzako organista oso ona zen, gainera. Orduan, oso garestiak ziren akordeoiak, baina istriputik ere diru pixka bat atera nuen, laster erosi nuen lehenengo akordeoia. 18 bat urte izango nituen orduan.

**Bertsozale amorratua ere bada Kaxiano.**

Bai, beti gustatu izan zaizkit bertsoak. Bertsoetan jardun ere egiten nuen orduan, plazetan. Neure kasa ikasi nuen.

**Zein bertsozale jantzi-ko du txapela?**

Hori jakitea ez da bat ere samurra.

**Zer ikusi nahi luke mundu honetan Kaxianok?**

Bakea. Horixe izango litzateke ederrena.

**Dena dela, batzuetan alferrik izaten da bista ona edukitzea elkar ikusi ezinda ibiltzeko.**

Bai, egia galanta da hori.

**Nora joango zinateke itsasontzi baten?**

Berak eramaten nauen lekura.

**Euskal Herriatik kanpora ere bai?**

Joan beharra izanez gero bai, baina bestela ez. Joatera ere, bueltatzekotan.

**Zeri dio beldur Kaxianok?**

Ezker ez; bueno, orain daukadan gaitzari. Gaitz famatu hori daukat.

**Zure kantu baten esaten duzunez, "Nor bere nortasunarekin bakean bizi behar da". Posible ote da hori?**

Posible behar luke, baina orain, hemen ez da erraza.

**Azaroaren 23an urteak beteko dituzunez, "Zorionak, zure urtebetetzean, zorionak, ta urte askotarako..."**

Bai, esan daiteke.

**"... Ta muxu bat zuretzako!"**

Eskerrrik asko.



**"Oso gaztetan etorri ginen Lizartzara, baina duda barik biziki maite dut Antzuola"**

**"Lan istripu baten ondorioz itsutu nintzen eta 17 urte nituela hasi nintzen akordeoia jotzen ikasten"**

**"Bakea, nahiko nuke mundu honetan, horixe izango litzateke ederrena"**

► Antzuolarra / 68 urte / Soinujolea

**PIPERRAUTSA**

*Sarbidea*

**O**ñati berria da Gipuzkoan. Ehun urte bakarrik dira Gipuzkoan sartzeko paperak sinatu zituela. Eta ehun urteren bueltan, paperetan barik, Oñati apenas sartu den Gipuzkoan.

Txantxikuak bereziak direla esan ohi da. Hizkeraz, baliteke. Izaeraz gutxiago, gero eta gutxiago. Hori bai, oñatiarrek Oñatin nahi dute, bereizten dituen gorde ahal izateko.

Antropologiak edo historiak izango dute honi buruzko azalpen sakonik. Umilago, nik uste dut Gipuzkoak ez diola Oñatiri sarbiderik eskaini. Orain arte.

Errepideak agintzen hasi eta gero, Oñatik Udana eta Elorregi beste loturarik ez du izan munduarekin. Udantatik, Brinkolako trenaren zegoen hurbilago Gipuzkoa bera baino. Beste muturrak Debagoiena jartzen zuen eskura, Oñatirentzat etxeko-agoa. Baina hor Elorregiko traba egon da eta Gipuzkoak ez du oraintxe arte traba hori kendu.

STOPera iritsita, beste guztiak pasa zain egon behar izan du oñatiarrak, bere eskubidea beste guztienaren atzetik zegoelako. Ulertzekoa da oñatiarrak herritik gutxi irtetea, derrigorrik ezean.

Orain, baina, Elorregiko biribila dator, urte amaierarako edo. Eta oñatiarrak Arrasatetik datorrenari paso emango dio, baina Bergara aldekoaren aurretik sartuko da biribilean.

Ehun urteko atzerapen luzez, Oñatik izango du laster Gipuzkoan sarbidea.

MIKEL IRIZAR



2001  
02  
Sukaldeak

**Ormazabal**  
Sukaldeak

Sta. Marina, 4  
Tel. 943 78 30 58  
20560 OÑATI